


Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko azaroaren 8a / 516. zenbakia



Ibargaraiko palmondoak



Ibargaraiko olibondoak




Irizarko azak

AZKEN JOERAK

Palmondoak, olibondoak,
aste honetan azak Irizarren...

Jose Ramon Badiola

Udaleko lorezainburuarekin
lorategietako landareen gainean
berba egin dugu



GOITBren ordua!

Orain, ordutegi zabalagoa.

13:30etik 16:30era
Albistegiak, sukaldaritza...

19:30etik 23:30era
Albistegiak, kirola, musika, bidaiak...

Asteburuetan 13:30etik 17:30era
Saio onenak berriz ikusteko aukera.

Goitb
Goiena Telebista

**Ikusiko
duzu!**

ATREBENTZIAEZPADA/ Zeuen urtekuek kintadarik egitten dozue? Ze gustatzen jatzu kintadetatik?



FRANCISCO MORENO
65 urte



ISABEL GÓMEZ
57 urte



GEMA GARCÍA
24 urte



JOSE LUIS AKIZU
71 urte



MARIA DOLORES BARRENA
74 urte



PATXI ITURBE
77 urte

Ez jat kintadak askorik gustatzen. Nere kintakuek egitten dabarik be ez dakit. Gaiñera, jun be ezin izango nitzake egin, ezin dot-eta ezer jan. Andriari gustatzen jako. Jun izan da.

Ez naiz iñoiz jun kintadetara. Berrogeita hamar urte bete giñuanian egin zeben, eta jente asko jun zan, baiña neu ez. Ez nau erakartzen. Gizonari bai gustatzen jako.


Aurten hasi gara, 24 urtekin. Jente asko jun zan, eta oso ondo pasatu giñuan. Gaiñera, ezagutzen ez dozun jentia ezagutzeko aukeria emoten dau, eta asko gustau jaten.

Urtero-urtero egitten dogu, eta neu be urtero-urtero juten naiz. Bazkarixa egitten dogu, eta ambientia oso politta izaten da. Oso ondo egoten da, aurtengua be egin dogu, uda partian.

Kanpokua naizenez, hemen ez dot sekula egin. Berrogei urtetik gora daroiat hemen, baiña ez dot nere adiñeko jentia ezagutzen. Ezagutu ezkerro, jungo nitzake.

Egitten dogu. Antzuolakua naiz, baiña aspaldi Bergarara etorritakua. Horretxegatik, Antzuolakuekin egitten dot urtero, baiña batzuetan Bergarakuekin be bai.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK ETA ELBARRIAK? Irizar jauregiko bulegoetara heltzeko hainbat arazo dute elbarriek. Atariraino hel daitezke, baina handik aurrera... Beheko solairura heltzeko zazpi harmaila daude, eta zer esanik ez goiko solairuetara heldu nahi badute. BERRIGARA hori frogatu ahal izan dugu. Elbarriren bat badator, kanpotik egin behar izaten du garrasi, gu haren presentziak jabetzeko. /M.B.

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK /5

KIROLAK /10

KULTURA /12

EHNA egiteko aukera

Gaur aurkeztuko du bulegoa Udaltzaren, eta bihar, EHNA egiten hasiko dira Kruz Gallastegi 7an.

Behobia-Donostia

Domekan jokatu den Behobia-Donostia lasterketan herriko 170 bat korrikalari izango dira.

'Dulce puta' antzezlan

Txalo Produktzioek *Dulce puta* lana eskainiko dute gaur, egubakoitza, Zabalotegi aretoan, 22:30ean.

ASTEKODATUA

28

ON SERAFIN ESNAOLAK HEMEN EMANDAKO URTEAK

On Serafin Esnaolak 28 urte eman zituen Bergaran. 1964ko ekainaren 7an esan zuen lehenengo meza San Pedron, eta astebete geroago, ekainaren 14an, San Antonion. 1992an joan zen.

BESTEKEESANA

“Euskarak enpresa mundua konkistatu beharra du. (...) Euskararen Gizarte Erakundeen

Kontseiluarena proiektu parte-hartzailea da, eta euskal hiztun ez direnek ere parte hartzen dute egitasmo honetan, eskatzen dugun bakarria helburu bera izatea da. JUAN MARIA OTAEGI / Euskadiko Kutxako presidentea 'Euskaldunon Egunkaria' /02-10-31

“Serafin Esnaolak San Antonioko ospakizun guztietan hartzen zuen parte. Katekesia,

mendizaleak, danborrada edo festak zirela. Maitatu zituen eta maitatu zuten. Nolakoa ongi etorria egiten zioten bergararrek topo egindakoan. MIKEL ATXAGA / Kazetaria 'Deia' /02-11-5

BERAIEKDIÑO/ Iñigo Iñurrategi



Aurrekontu parte hartzaileak

Datorren urtean hauteskundeak izango ditugu berriz, eta kontu berarekin jarraituko dugu. Udalerriaren kudeaketarekin baino beste maila bateko arrazoi politiko-engatik aukeratuko ditugu gure udal ordezkariak, eta ala! beste lau urtetan nahi edo ahal dutena egin dezate. Ez dut esan nahi horrekin udal ordezkariak kudeatzaile txarrak direnik (orokorrean), eta gainera borondate onez jokatzeko dutelakoan nago. Baina horrek ez du bermatzen herriaren nahi eta beharrei aurre egingo zaienik. Izan ere egungo udal ereduak, eta batez ere gehiengo absolutua badu udal gobernuaren buruak, hauteskunde garaian aurkeztutako programarekiko egon daitekeen borondatezko konpromisoaz aparte, gainontzekoak erabaki aldebakarrekoak dira, eta herritarrok ezer gutxi pinta-tzen dugu, gehienbat kexatzeko aukera besterik ez dugu izaten.

Eta kexatzea da sistema demokratiko batean herriak bere buruari egin diezaioketen ekarpen nagusia? Ez dit balio esateak beste modurik ez dagoenik. Izan ere egon badago beste modurik udaletxeko aurrekontuak kudeatzeko, eta ez dago ezer asmatu beharrik. Poliki-poliki munduko herri eta hiri ezberdinetan "Aurrekontu Parte hartzaile" bezala ezagutzen den ereduak ezartzen ari da. Etsenplurik argigarrietakoa Porto Alegrekoa da (<http://www.poder-ciudadano.org.ar/prog08.htm>). Erakunde baten aurrekontua erakunde horrek aurrera eraman nahi dituen proiektuen giltza da, eta eredu berri hau, funtsean, herritarrok aurrekontuen definizioan eta kudeaketan parte hartzean datza. Metodologia oso garatua dago eta gurea baino hiri handi eta konplexuagoetan funtzionatzen du. Beraz, ez dago aitzakiarik. Nire botoa nahi duenak badaki gutxienez ze proposatu behar didan. Bestela jai daukate.

"Kexatzea da demokrazia batean herriak bere buruari egin diezaioketen ekarpen nagusia?"

GUARDIAKO FARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 8**
CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74
- ZAPATUA, 9**
PUY. Barrenkalea 25. 943 76 16 87
- DOMEKA, 10**
PUY. Barrenkalea 25. 943 76 16 87
- ASTELEHENA, 11**
GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05
- MARTITZENA, 12**
ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63
- EGUAZTENA, 13**
MOZOS. San Pedro 4. 943 76 12 15
- EGUENA, 14**
CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74

TELEFONO JAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40
- Bergarako udaltzaingoa 943 77 91 06
- Antzuolako udaltzaingoa 943 76 62 46
- Ertzaintza 943 76 53 40
- Osasun etxea 943 76 24 40
- Asepeyo 943 76 16 43
- Pakea 943 76 13 49
- Angiozarko medikua 943 78 90 27
- Antzuolako medikua 943 76 62 23
- Odol emaleak 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

- GARRAIOAK**
- Taxiak 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
- Udal Artxiboa 943 77 91 32
- Igerilekuak 943 76 20 51
- Kultura etxea 943 77 91 58
- Liburutegia 943 77 91 62
- Kiroldegia 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitegia 943 76 14 92
- Erregistroa 943 76 13 15
- Jardun 943 76 36 61
- Idolaz 943 76 65 08
- Erretiratuen etxea. Bergara 943 76 21 40
- Antzuolako erretiratuen elk. 943 76 62 71
- Postetxea 943 76 26 85
- Begetlar 943 76 04 68
- Akulu AEK 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia 943 76 44 53
- Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

- | | |
|-------------------|---------------------|
| San Pedro | Labegarieta |
| Domekak: | Domekak: 11:00. |
| 09:30, 12:30. | San Lorentzo |
| Zapatuak eta | Zapatuak: |
| lanegunak: 19:00. | 20:00. |
| Sierbak | Angiozar |
| Lanegunak: 19:15. | Domekak: |
| Zapatuak: 19:00. | 11:30. |
| Domekak: 11:30, | Moja |
| 13:00. | Zaharrak |
| Osintxu | Lanegunak: 9:00. |
| Domekak: 12:30. | Zapatuak: 11:00. |
| Zapatuak: 19:00. | Mizpirualde |
| Elosu | Lanegunak: 11:45. |
| Domekak: 10:30. | Zapatuak: 17:30. |
| Ubera | Antzuola |
| Domekak: | Domekak: |
| 10:30. | 09:00, 11:30. |
| San Juan | Zapatuak eta |
| Domekak: 11:00. | lanegunak: 19:30. |
| Elorregi | Uzarraga |
| Domekak: 10:30. | Domekak: 10:00. |

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**
Hileko 2. astean, domekan, 11:30ean.
- San Pedro**
Hileko 3. astean, domekan, 12:30ean.

OHARRAK

1953AN JAIOTAKOAK
1953an jaiotakoen afaria azaroaren 16an Txarrantxa jatetxean, 21:30ean. Izenematea (15 euro), Txarrantxan, Kiñun edo Irizar kaleko ONCEko kioskoan.

1943AN JAIOTAKOAK
1943an jaiotakoen afaria azaroaren 16an Azpeitxi jatetxean, 21:00etan. Izenematea: Maher (943 76 22 90), Zubieta (943 76 16 13) edo Fernández (943 76 53 22).

1962AN JAIOTAKOAK
1962koen afaria hilaren 16an Errekin. Izenematea, bertan hilaren 12ra arte.

1935EAN JAIOTAKOAK
1935ean jaiotakoen bazkaria azaroaren 17an Torrekua jatetxean. Izenematea, bertan (12 euroko depositua) hilaren 14ra arte.

1934AN JAIOTAKOAK
1934koen bazkaria (1955eko kintoak) hilaren 23an Torrekua jatetxean, 14:45ean. Txartelak, Torrekuan bertan.

1938AN JAIOTAKOAK
1938an jaiotakoen bazkaria hilaren 23an Pertxan. Izenematea: 943 76 15 36 (Mariasun Gardoki), 943 76 18 64 (Migel Lazkano), 943 76 42 08 (Juan Alkorta) edo 943 76 35 17 (Mari Karmen Leturia).

1946AN JAIOTAKOAK
1946koen afaria hilaren 23an Tartufo jatetxean. Izenematea, bertan (943 76 35 51).

1945EAN JAIOTAKOAK
1945ean jaiotakoen afaria hilaren 23an Azpeitxi jatetxean. Izenematea (30 euro) Kutxan irekitako kontuan, hilaren 17ra arte.

1933AN JAIOTAKOAK
1933koen bazkaria hilaren 24an Torrekuan. Izenematea (6 euroko depositua), Torrekuan edo Intxortan.

URBANOENORDUTEGIA

San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okIndegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta / Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTEBERRIGARAN


Irizar eta Rodríguez, Espainiako txapeldun

Pablo Irizar eta Iban Rodríguez auto gidariak Espainiako txapeldun izan ziren. Irizarrek Renault Clio Kopa eskuratu zuen eta Rodríguezek Renault Clio Iniciación txapelketan lortu zuen garaipena. Jokaturako bederatzita lasterketetatik bost irabazi zituen Rodríguezek.



BERTAKO BERRAK / Juan Martin Elexpuru

"Tatarras"



Arrastaka.
-Tatarras eruan biar izaten dou medikuana.

ASTEKO FILMAK

'LA CAJA 507'
ZUZENDARIA: ENRIQUE URBIZU. AKTORE-
AK: ANTONIO RESINES, JOSE CORONADO, GOYA
TOLEDO.

HARIA. Modesto Pardo banketxe bateko zuzendaria da, eta lapurtu egin diote. Egun baten, sekretu bat deskubrituko du segurtasun kaxetako agiri baten. Ustelkerian barneratuko da.

TOKIA ETA ORDUA. Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 19:30ean eta 22:15ean; eta astelehenean, 19:30ean (ikuslearen eguna).

PUNUAZIOA: ●●●●●

'JIMMY NEUTRÓN, EL NIÑO INVENTOR'
ZUZENDARIA: JOHN A. DAVIS.

HARIA. Umorea, fantasia eta abentura uztartzen dituen animaziozko filma. Jimmy Neutron txikia etengabe ari da tresnak asmatzen, Retroville-ko bizimodua nahiko aspergarria da-eta. Jimmy eta haren lagunak Retroland jolasparke berria inauguratzeko irrikan daude...

TOKIA ETA ORDUA. Zapatuan eta domekan, 17:00etan.

PUNUAZIOA: ●●●●●

HAUGIROA!

MINIMOA
Egubakoitza, 1 **7°C**

MAXIMOA
Zapatua, 2 **24°C**

ASTEKO EURIA (l/m²) **56,9 L**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 30	21 °C	10 °C	36,6 l/m²
Eguena, 31	20 °C	13 °C	- l/m²
Egubakoitza, 1	20 °C	7 °C	- l/m²
Zapatua, 2	24 °C	8 °C	3,2 l/m²
Domeka, 3	16 °C	14 °C	5,3 l/m²
Astelehena, 4	13 °C	10 °C	6,3 l/m²
Martitza, 5	18 °C	10 °C	5,5 l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak

Musika eta liburuak

Ibargarai 12 - 20570 BERGARA Tel.: 943 76 40 50 Faxe: 943 76 23 52
bergara@megadenda.com http://www.megadenda.com

GIZARTEA/ San Antoniotik 76 laguneko autobusa eta hainbat auto joan ziren hiletara; haren omenezko meza ere esango dute Bergaran

Herritar ugari joan ziren Donostiara On Serafin Esnaolari azken agurra egitera

MONIKA BELASTEGI

Domekan, On Serafin Esnaola abadea hil zen Donostian, 87 urte zituela; hileta-elizkizunak ere Donostian izan ziren, Nuestra Señora del Rosario elizan, martitzenean. Bergaran izandako urteetan egindako lagunetako asko hurbildu ziren bertara azken agurra emateko.

On Serafin oso ezaguna genuen herrian; izan ere, hainbat urtez izan zen abade San Antonion. Ezaguna izateaz gain, maitatua ere bazen, eta halaxe erakutsi zuten martitzenean haren hileta-elizkizunetara hurbildu ziren herritarrek: San Antoniotik, esaterako, 76 lagun joan ziren autobusez eta beste hainbat autoz.

Horrez guztiaz gain, San Antonio auzotarrek esan dutenez, haren omenezko mezak egingo dituzte Bergaran. Egunak zehaztu barik dauden arren, San Pedron eta San Antonion izango dira mezak.

TRINTXERPETIK BERGARARA

Errezilen jaio zen Serafin Esnaola Bidaurreta, 1915eko urriaren 10ean, eta handik bi urtera Ormaiztegiara joan zen bizi izatera. Harrezkero, hantxe bizi izan zen, 23 urterekin abade egin zen arte. 1939an ordenatu zen abade, Bergarako San Pedro elizan, eta urte horretan bertan Trintxerpen hasi zen abade laguntzaile.



San Martinetan izan zen Bergaran azkeneko aldiz, Erreileno eta Tostoi Kofradiak ohorezko kofradiakide izendatu zuenean.

Han urteak eman ondoren, utzi egin behar izan zuen, gotzainaren aginduz, eta Bergarara etorri zen, 1964ko maiatzaren 24an.

LEHENENGO MEZA, BERGARAN

1964ko ekainaren 7an esan zuen lehenengo meza San Pedron, eta

astebete geroago, ekainaren 14an, San Antonion.

San Antonion, gainera, harre ezin hobea izan zuen hasieratik, eta 1967an, katekesiak ematen hasi zen. Hasieran auzokoei, baina gero kalekoei ere bai; ehunka ume pasatu ziren bertatik.

*1939. urtean
ordenatu zen abade
Bergarako San
Pedro elizan*

Baina beste ekimen batzuetan ere hartu zuen parte On Serafinek, Bergaran eman zituen urteetan. Besteak beste, guraso batzuek eskatuta, 1969an, Pol-Pol Mendizale Taldearekin kolaboratzen hasi zen, eta Gaztetxoeren Sailaren ardura hartu zuen.

Bergaran 28 urtez jardun ondoren, 1992. urtean, erretiratu egin zen, eta irailaren 22an utzi zuen herria. Ordutik hona, Donostiako Amara auzoan bizi izan da, domekan hil zen arte.

HAINBAT SARI ETA BI LIBURU

Kirolzale, argazkizale, zinemazale eta euskaltzale amorratua izan zen On Serafin, eta urtetan egindako lanagatik hainbat sari eta esker on jaso zituen. Bergaran, esaterako, Bergarako Kirol saria jaso zuen, Pol-Polen egindako lanagatik, eta aurrean, San Martinetan, Erreileno eta Tostoi Kofradiako ohorezko kofradiakide izendatu zuten.

Bestalde, Sabino Arana Kultur Elkargoak ere azpimarratu izan du On Serafinen lana, batez ere, Francoren garaian kristautasunaren, askatasunaren eta hiritarren eskubideen alde egindakoa. Lan hori guztia eskertzeko Sabino Arana saria eman zioten, 1999. urtean.

Bi libururen egilea ere bada: 1994an, *El clero en la clandestinidad (1940-1968)* argitaratu zuen Emiliano Iturraranekin eta 1997an, *El cierre de una iglesia*.

EHNA egiteko bulegoa ireki dute Kruz Gallastegi 7an

MONIKA BELASTEGI

Euskal Herriko Naziotasun Aitormena tramitatzeko Udalbiltzak Kruz Gallastegi 7an atondu duen bulegoa aurkeztu zuten martitzenean prentsaurrekoan. Herri aurreko aurkezpena gaur, egubakoitza, izango da, eta EHNA tramitatzeko bihurtik aurrera hasiko dira.

Bai Euskal Herriari taldeak aurkeztu zuen prentsaurrekoan EHNA (Euskal Herriko Naziotasun Aitormenaren agiria) tramitatzeko Udalbiltzak egokitu berri duen bulegoa. Kruz Gallastegi kaleko 7. zenbakian dago lehenengo bideokluba zegoen lokal berean, eta bulegoaren helburua da interesá duten herritarren eskuetan EHNA jartzea.

Komunikabideendako aurkezpena martitzenean izan zen arren, aurkezpen ofiziala gaur, egubakoitza, izango da, 20:00etan, eta Udalbiltzak egingo du. Eraikundearen kide Oscar Goñi eto-

rriko da herrira bulegoaren aurkezpen ofiziala egitera.

ASTELEHENETIK ZAPATURA EGONGO DA ZABALIK BULEGOA

Gaur aurkeztuko du Udalbiltzak bulegoa, eta bihar hasiko dira tramitazioak egingo. Horretarako herriko zinegotziak egongo dira bulegoan, txandaka, eta eurak arduratuko dira tramitazioaz. Bulegoak honako ordutegia izango du: astelehenetik egubakoitzera, 18:00etatik 20:00etara; zapatuetan, 11:00etatik 13:00etara.

TRAMITAZIOA EGITEA OSO ERRAZA DA

EHNA eskuratzea oso erraza da, Bai Euskal Herriari taldeko kideek prentsaurrekoan azaldu zuten bezala: hiru argazki, 12 euro eta Bergarako errolda-agiria bakarrik eraman behar dira bulego-
ra. Bulegoan dagoen zinegotziak eskaera orria beteko du, eta handik Udalbiltzara bideratuko dute. Denbora baten buruan, agiria prest dagoenean, abisua jasoko du eskaera egin duenak, eta Kruz



Komunikabideendako aurkezpena Bai Euskal Herriari taldeko kideek egin zuten; ofiziala Udalbiltzak egingo du, gaur.

Gallastegiko bulegotik pasatu beharko da agiria jasotzeko.

Bai Euskal Herriari taldeak prentsaurrekoan azaldu zuenez,

“EHNA modu praktikoan landu nahi dugu. Agiri horrek zilegitasun osoa izango du, eta kalean haren erabilera bultzatuko dugu,

bai dendetan, bai udaletxean, bai banketxeetan txartela onartua izatetik, EHNaren eguneroko erabilera bermatu arte”.

MONIKA BELASTEGI



ARTXIBOA

Gaztetxea egokitzeko lanen aurrekontua 420.700 euro ingurukoa da.

GAZTETXEA/ Lanak noiz hasiko dituzten zehaztu barik dago oraindik

Udalak gaztetxea egokitzeko lanak esleitu berri ditu

MONIKA BELASTEGI

Udalak erabaki du dagoeneko nork egingo dituen gaztetxea egokitzeko lanak. Lehiaketara aterata ondoren, enpresa bakarrak aurkeztu du bere burua lanok egiteko, Construcciones Arregiri, hain zuzen. Udaleko Gobernu batzordeak lanok esleitzea erabaki du.

Bigarren aldia da lanak egiteko baldintzak lehiaketara ateratzen dituztela. Lehenengoz uztailean kaleratu zituzten, baina lehiaketa

hutsik geratu zenez bigarren-egoz atera behar izan dituzte, eta bigarren aldi honetan Construcciones Arregiri esleitu dizkiote lanak.

LEGEAK ESKATZEN DITUEN BALDINTZA GUZTIAK BERMATUZ

Iñaki Berasategik, Elisabeth Enak eta Xabier Berasategik egindako proiektua hartu beharko du oinarri Arregi enpresak gaztetxea egokitzeko, eta, proiektuan jasotzen denez, legeak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzeko moduan egokituko dute.

Kartzelariaren etxean, beheko solairuan taberna egongo da, komunak, goiko solairuetara igotzeko eskailera eta igogailua. Lehenengo solairuan komun gehiago egingo dituzte, erabilera askotariko hainbat gela eta Txapa Irratia. Kartzela zaharrak, berriz, ekitaldiarako gune izaten jarraituko du, baina aldaketa txiki batzuekin: besteak beste, komunak kendu egingo dituzte eta berogailu sistema berria jarri.

Horrez gainera, elbarriadako malda ere egingo dute Irazabal kaletik gaztetxeraino.

Beilatoki zerbitzua izango da herrian urtariletik aurrera

MONIKA BELASTEGI

Euskalduna ehorztetxeak irekiko du, Amillaga 39an duen egoitzan. Ehorztetxe arduradunen esanetan, urtarilaren 1etik aurrera ekin nahi diote zerbitzu berriari. Egoitza egokitzeko lanak hasi dituzte.

Egoitza egokitzeko lanak amaitu bezain laster irekiko dute beilatokia, eta Endika Azpiroz Euskalduna ehorztetxe arduradunen esanetan, "urtarilaren lean hasiko gara, seguruenik, zerbitzua eskaintzen". Birgaitze lanei dagokienez, eraikinaren kanpoko aldeak ez du aldaketa nabarmenik izango: "Aurpegia garbitu besterik ez diogu egingo; barruko aldeak, berriz, bai: bezeroendako harrera tokia izango du sarreran, hildakoa beilatzeko bi gela eta komunak".

Hildakoa beilatzeko gelari dagokionez, bi gune izango ditu: batetik, hildakoa egoteko kristalezko tumulua; eta bestetik, haren

senitartekoak egoteko tokia. Baina hildakoaren tumuluak eta senitartekoarendako guneak banaketa txiki bat izango dute.

ETXEAN BEILATU BEHARREAN, KANPOAN


Endika Azpirozek azaldu duenez, azken urteetan ugaltzen ari den zerbitzua da beilatokia, eta helburua da "orain arte etxean egin izan dena etxetik ateratzea, senitartekoei lana kentzeko. Senitartekoei etxetik kanpora beila dezakete hildakoa, eta herritarren bisitak ere beilatokian jaso". Euskalduna ehorztetxeak Zarautzen ere badu beilatokia. Duela zortzi urte ireki zuten, eta Azpirozek esan duenez, gaur egun jende ugari erabiltzen duen zerbitzua da.

Beilatokiaren ordutegia oraindik zehaztu barik dagoela adierazi du ehorztetxe arduradunak. Seguruenik, baina, 09:00etatik 22:00etara egongo da zabalik. Prezioari dagokionez, hori ere zehaztu barik dago.



MONIKA BELASTEGI

Amillaga kaleko 39. zenbakian jarriko du Euskaldunak beilatokia.



Agorrosingo aldagelen proiektua

Agorrosingo futbol zelaian aldagelak egiteko proiektua idaztea Alvaro Pérez de Amegaga arkitektoari esleitzea erabaki du Udaleko Gobernu batzordeak. Horrez guztiaz gain, obren zuzendaritza eta osasun eta segurtasun proiektua ere arkitekto berberari esleitu dizki Udalak. Aurrekontua 18.560 euro ingurukoa da.

Aldagela berriak Agorrosin bertan eraikitzea aurreikusi du Bergarako Udalak, harmailen eskuinaldean, hain justu ere.

LABUR

Bi herritar larriki zaurituak Mendazan izandako istripuan

Joan den domekan, hilak 3, Mendaza herrian izandako auto istripu batean, Bergarako bi neska gaztek (Y. P. eta R. B., biak 26 urtekoak) zauri larriak jaso zituzten. Istripu berean eurekin autoan zihoban M. C. Cacereseko 19 urteko mutil gazteak bizia galdu zuen.

Istripua 23:55 aldera gertatu zen, NA-132An, aipatutako hiru gazteak zihobaz autoak eta Nafarroako matrikuladun beste auto batek elkar jo zutenean.

ELKARRIZKETA

JOSE RAMON BADIOLA/UDALEKO LOREZAINEN ARDURADUNA

“Frantzian azak eta zerbak, esate baterako, lorategi askotan ikusten dira”

MONIKA BELASTEGI

Jose Ramon Badiolak urte asko daramatza lorezain lanetan. Egunotan Irizar jauregiko lorategia atontzen aritu dira, eta oso landare bereziak landatu dituzte apaingarri gisa: azak. Badiolak azaldu duenez, ez ei dira jatekoak.

Irizar lorategia konpontzen aritu zarete, eta lore oso berezia jarri zenuten astelehenean.

Azak dira, baina apaingarri gisa erabiltzen direnakoak. Ez da jateko aza, soilik apaintzeko balio du. Oraindik txikiak daude. Denborarekin zabaldu egingo dira, baina burua ez zaie handituko, txiki mantenduko dute. Dauden tokian eguzki handirik ez dute izango eta burua ez zaie gehiegi egingo. Baina oso kolore polita hartuko dute. Iluntzen joango dira poliki-poliki eta gorri ilun-iluna jarriko dira. Zenbat eta hotz handiagoa, orduan eta ilunago jarriko dira.

Bergaran badago ortuko bestelako produkturik lorategiren batean?

Ez. Baina Frantzian azak eta zerbak, esaterako, toki askotan ikusten dira, biribiluneetan ere bai. Bergaran jarriz gero, bateren batek eroan, igual. Loreekin, behintzat, hori gertatzen da. Askok falta izaten dira.

Baina, bueno, nork daki, agian egunen batean zerba ere jarriko dugu.

Nork erabakitzen du zer jarri eta zeren arabera?


Guk. Lorezain sailak. Azaren kasuan zerbait berria jarri nahi genuen, ezberdina. Bestalde, Irizar oso zikina zegoen eta txakur-eraginez guztiz kaskartuta. Beraz zegoena kendu egin dugu bi gorostiak izan ezik. Horiek errespetatu egin ditugu.

Horrez gain, zer lore edo landare jarri tokia arabera ere izaten da. Toki eguzkitsu edo iluna den, urik dagoen edo ez...

Ibargarai hiribidean palmondoa eta olibondoak, Irizarren aza... Moda berriak datoz ala?

Ibargaraiakoa ez da gure gauza izan. Etxebizitza berriak egin direnean, kontratistek ingurunea urbanizatzeko lanak ere jasotzen dituzte proiektuan, lorategiak barne, eta horren barruan erabakitzen dute zein lore jarriko dituzten. Ibargaraiak lorategien proiektua, esaterako, Inigo Segurok egin zuen.

Guri, gainera, ez digute inoiz kontsultatzen jarri behar duten landareen gainean, baina gero guk arduratu behar izaten dugu mantenuaz.



MONIKA BELASTEGI

“Irizar jauregiko lorategiari itxura berria emateko asmoz jarri ditugu azak”

“Oso gutxi errespetatzen ditugu lorategiak. Orain hasi gara errespetatzen”

Oro har errespetatzen ditugu lorategiak?

Orain hasi gara errespetatzen, eta Irizar aipatuko dut berriz. Lotsagarria da labirinto itxura duen lorategiaren alde hori. Txakurra eramateko lekuri gustukoena ei da batzuentzat, eta lotsagarria da zein egoeratan egoten den. Inoiz heziz ixtea ere pentsatu izan dugu. Hainbat diru gastatzen dugu konponketetan eta batzuek ez dute ezer errespetatzen.

Egongo dira herrian guneren batzuk lorategiak guztiz berritzeko premia dutenak.

Martoko auzoa da horietako bat. Baina lorategiez gain, beste gauza asko konpontzeko behar dituen auzoa da.

Eta beste bat epaitegi aurreko lorategiak dira. Beti esaten dugu arbola horiek Jainkoa jaiotzen garaikoak direla. Urte asko dute, eta egoera kaskarrean daude. Zuhaitz horiek aldatzea ere komenigarria izango litzateke, batzuk arriskutsu ere badaude eta.

Eta orokorrean herriko lorategiak, zuhaitzak... zein egoeratan daude?

Zuhaitzak oso ondo. Esan daiten gehiegi daudela, Matxiategi aldean eta Labegaraietan bai, behintzat. Batzuk kentzea komeniko litzateke.

Nahiko kaskar ikusten ditudanak parkeak dira. Santa Ana eta Arrizuriaga adibidez, ukitu gabe daude.

Hego Amerikako errealitatea ezagutzeko bideo emanaldia

MONIKA BELASTEGI

Mugen Gaietik gobernuz kanpoko erakundeak eta Udaleko Ongizate Zerbitzuak antolatuko dute. Astelehenera eguenera, bost herrialdeko zazpi bideo eskainiko dituzte, kultura etxean, 19:30ean.

Isiltasunaren aurka, ahots guztiak du izena bideo emanaldi horrek, eta helburu nagusi bat du: ahotsik gabe dauden hainbat herri ezagutzera ematea.

Lau egunean bost herrialdeko bideoak ikusteko aukera egongo da. Bideo horiek Guatemala, Kolonbia, Brasil, Txile eta Mexikoko herri indigenetako errealizadoreen egindakoak dira, eta bertan herri indigena horien bizimoduaren eta errealitate ezberdinen berri ematen dute: Maputxeek, Mehinakuek, U'waek, Moxtekoek, Nahuaek,

Tlapanekoez, Trikiek, Huastekoez eta Amuzek hitz egiten dute bideoetan, eta bideo emanaldiaren izenburuari jarraiki, ahotsik gabe, isiltasunean bizi diren herrien errealitatea kontatuko dute.

ASTELEHENETIK EGUENERA

Hilaren 11n, astelehena hasiko da emanaldia eta eguenera arte luzatuko da. Emanaldi guztiak kultura etxean izango dira 19:30ean.

Hilaren 11n, bi bideo ikusteko aukera egongo da: *Mehinaku, Amazoniako Mezua* (Brasil, 29') eta *Gure Herria* (Mexiko, 27').

Hilaren 12an, hiru bideo egongo dira: *Resistencia Lafkenche* (Chile, 22'), *Ildoaren bidean* (Mexiko, 27') eta *Chavivanej, Hezkuntzaren zaintzaileak* (Mexiko, 30').

Hilaren 13an, *Lurraren odola* (Kolonbia, 54') emango dute, eta azkenik, hilaren 14an, *Hitz desehortzia* (Guatemala, 74').

LABUR

Suradesa zerbitzuak aldatu egin du herritarrendako harrera ordua

Bergarako Udalak aditzera eman duenez, Eusko Jaurlaritzak etxebizitzak erosi edo konpontzeko ematen dituen dirulaguntzen berri zabaltzeaz arduratzen den Suradesaren bulegoak ordutegia aldatu du. Ordutegi berria honakoa izango da: eguaztenetan, 10:30etik 12:30era.



Megalitoak seinaleztatzen hasi dira

Martitzenean hasi ziren Aranzadi Zientzia Elkarteko kideak eta Udaleko langileak herriko tumuluak eta dolmenak seinaleztatzen eta garbitzen. Astelehenera guztiak garbi eta seinaleztatuta utzi dituzte, bi izan ezik: Arribirilleta eta Irukurutzeta Mendebaldeko tumuluak, hain zuzen ere. Bi horiek garbitu egin dituzten arren, datorren urtean seinaleztatuko dituztela adierazi du Luis del Barriok, Aranzadi Zientzia elkarteko kideak.



BERGARAKO ATHLETICZALEAK SAN MAMESEN

Bergarako Peña Athleticen lagunak San Mamesen izan ziren domekan, Athleticen eta Celtaren arteko partiduan. Goizetik 40 lagun (Txarli López Celtako jarraitzailea tartean) joan ziren Bilbora, eta, Deustuko garagardotegi baten bazkaldu ondoren, Athletic animatzen izan ziren. Nahikoa sufritu zuten Athleticzaleek, galziarrak 0-1 aurreratu ziren-eta markagailuan. Hala ere, bilbotarrek erreakzionatu egin zuten eta azken minutuan Urzaizek lortutako golari esker denboraldiko bigarren garaipena lortu zuten. Lasaitu ederra hartu zuten San Mameseko zaleek, Athletic nahiko kaskar dabil-eta liga hasieran. Antza, Bergarako zaleek zortea eman zieten Heynckesen mutilei. Bergarako Peña Athleticen antolatzen zuen lehen irteera izan zen domekakoa, eta Athleticen Bilbotik kanpo jokatzen duen partiduren batera joateko asmoa ere badaukate. Hilario Azkargortak ateratako argazkian Peña Athleticen lagunak ikus ditzakezue, frontoian, domekan Bilbora joan aurretik.

SANTA MARINAKO ZUBIA KONPONTZEN

Udal brigadako langileak Santa Marinako zubian lanean ditugu egunotan. Zubiaren bi aldeetan dagoen hormatxoa egoera txarrean dago, eta berau konpontzen ari dira, hain zuzen ere. Hormatxoak harriak galdu ditu hainbat puntutan azkenaldian, eta, horrez gain, juntaturak ere berritu beharra dago. Hortaz, zubiaren zati bat hesi batez inguratu dute eta udal langileek lanak egingo dituzte datozen egunotan. Gogoratu behar da Santa Marina parrokiako berritze lanek ere aurrera jarraitzen dutela. Horrenbestez, hilabete gutxi barru, parrokia eta ingurua erabat itxuraldatuta agertuko zaizkigu.



OGIZUN

koop. elk.
okindegia



San Pedro 21 Ibargarai 44-46
BERGARA BERGARA
943 76 20 49 943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldean
erreforma

Pintura zerbitzu osoa

Moketak

943 76 14 60

607 447 494

943 76 59 59

Bergara


Arin jatetxea

BERRIZ ZABALIK

Eguneko menua · Menu berezia
Karta · Kintadak

Kalebarren 7 **ANTZUOLA** 943 78 71 63

MINGAINARITIRAKA



Alberto Hernández

ARALAR TABERNAKOA

Kubatarra jaiotzez, duela urtebete Bergaran bizi da Alberto (36 urte). San Petersburgon Telekomunikazioetako Ingeniaritza ikasketak egin zituen, bost urtez, eta Euskal Herrira 1999an iritsi zen, Donostia eta La Habana arteko elkartruke bati esker.

Zer du Kubak Euskal Herriak ez daukana?

Uda amaigabea.

Euskal Herritik gehien gustatzen zaizuna?

Jendea, oso maitekorra delako. Oso ondo tratatu naute hemen.

Eta gutxien?

Egoera sozio-politikoa. Oso nahasia dago, eta, ikusitakoa ikusita, irtenbide zaila dauka.

Kubako tokirik ederrena?

La Habanako alde zaharra. Ni La Habanan jaiotakoa naiz, eta, logikoa denez, izugarri gustatzen zait.

Kubatarrak modan zaudete.

Telebista ikusita, baietz ematen du. (Barreak)

Dantzarako erraztasuna daukazue kubatarrok...

Ez da nire kasua. *Kubata* baten ondoren edozein hasten da dantzan, baina ez naiz oso iaioa dantzatzeko orduan.

Kuba-librea ala kalimotxoa?

Kuba-librea.

Parrandazalea zara?

Bai, asko gustatzen zait diskoteketara joan eta lagunekin egotea.

Parrandarako toki bat?

Hiriburuetako giroa atsegin dut, aukera zabalagoa duelako.

Besteengan gehien estimatzen duzuna?

Egiazaletasuna.

Zer izan nahi zenuen txikitari?

Astronauta.

Denbora librean zer egitea gustatzen zaizu?

Liburu teknikoak irakurri, telebista ikusi, lagunekin irten...

Telebistako programa bat?

Albistegiak, *Crónicas marcianas*, *Impacto TV*...

Gomendatuko zenukeen liburu bat?

20.000 leguas de viaje submarino, Julio Verne.

Amets bat?

Zoriontsu izatea.

Loteria irabaziz gero, zer egingo zenuke?

Turismo espaziala egin nahi nuke.

EDU MENDIBIL

BERGARARRAKMUNDUAN

OSCAR IGARTUA

28 URTE / BANESTON DIHARDU LANEAN / ALACANTEN BIZI DA

“Askotan, Euskal Herrian izaten diren egun euritsuak sumatzen ditut faltan Alacanten”

EDU MENDIBIL

Gaztetatik etxetik kanpo bizi izan dela diosku Oscar Igartuak: “Hamabost bat urte nituenetik kanpoan izan naiz ikasten. Batxilergoa burutu ondoren Madrilerara joan nintzen, Enpresaritza ikasketak egitera, eta azken hiru urteak Alemanian eta Ingalaterran egin nituen”.

Euskal Herrira itzuli ondoren Fagorren hasi zen lanean, Eskoriatzan, eta duela bi urte inguru Alacantera joan zen bizi izatera: “Elena nire emaztea Alacantekoa da. Erizaina da, eta Euskal Herrian, Osakidetzan, lana topatzea nahiko zaila zeukan. Hortaz, hona etortzea erabaki genuen. Nik txikitatik ezagutzen dut Alacant, eta ez zait batere kostatu hemengo bizimodura ohitzea, aspaldiko lagunak ditugulako, eta horrek gauzak asko errazten dituelako. Gustura dihardugu, nahiz eta Euskal Herria faltan sumatzen dudan zenbaitetan”.

Elena eta Oscar joan den urtean, urrian, ezkondu ziren. Etxea erosi zuten Alacantetik oso gertu, Playa San Juanen, hain zuzen ere. Oscarren esanetan, “nahiko leku lasaia da, eta abantaila hori dauka, hiriburutik oso gertu dagoela. Hala ere, askotan, hemen gertzea nahiago izaten dugu, Playa San Juanen denetik dago-eta aisialdiari dagokionez”.

Alacant hiria ez zaio askorik gustatzen Oscarri: “Urteko egun gehienetan eguzkia izan arren, hiri goibela da Alacant. Hiri zikina eta zaratatsua da. Hara egunero lanera joatea zoramena da, zirkulazio ikaragarria duelako. Bergara gaizki dago aparkatzeko orduan, baina hemengo sinestezina da. Berez hiriak ez zaizkit gustatzen, eta Alacant ez da bate-

re erakargarria. Hori bai, hemengo eguraldia luxua da, ia egunero eguzkia izaten dugu-eta. Eurria gutxitan egiten du, baina uholdeak izaten dira askotan, sekulako euri-jasak izaten direlako. Beharbada, arraroa egingo zai-

zue, baina askotan, Euskal Herrian izaten diren egun euritsuak sumatzen ditut faltan”.


Esan bezala, Elena erizain lanetan ari da eta Oscar, berriz, Baneston dihardu lanean: “Hona etorri baino lehen lana topatu nuen Baneston, eta bertan dihardut. Lana beti lana da, baina gustura dihardut. Lana dela eta, Alacant eta Murztzia artean ibiltzen naiz gehienbat”.

Aste bukaeran lasaitasuna bilatzen dute Oscarrek eta Elena: “Hemengo gaueko giroak ez dauka zerikusirik Euskal Herrikoarekin, eta lasai egotea gustatzen zaigu. Ahal dudanean itsasoan urpekaritza egitera joaten naiz. Hondartza ez zait horrenbeste gustatzen. Zinemara, antzerkera eta bestelako ikuskitzuetara ere joaten gara askotan; alde horretatik, kultura eskaintza zabalagoa dauka Alacantek”.

Lagunekin ere askotan irtezen dira, eta jendeak, orokorrean, oso ondo hartu dituela dio Oscarrek: “Trago bat hartzera joateko jendea erraz topa dezakezu, baina benetako lagunak egitea kostatu egiten da. Euskaldunekin alderatuz, hemengoak, normalean, ez dira esandakoa betetzen dutenak. Hitzeko jendea topatzea zailagoa da”.

Lagunak eta familiartekoak ere sarri joaten zaizkio bisitan. Oscarren Bergarako aitona-amonak egon berri dira eurekin egun batzuk igarotzen: “Izugarri eskertzen dira bisitak. Gu, normalean, Aste Santuan gero udako oporretan joaten gara Bergarara. Abuztuaren izan ginen azken aldiz, baina egun horietan jende gehiena herritik kanpo izaten da. Gabonetan berriro ere joango gara Bergarara, ziurrenik. Bitartean, goraintziak laguneri”.

“Txikitatik ezagutzen dut Alacant, eta ez zait batere kostatu hona ohitzea”



POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara


ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8. BERGARA
Tel. 943 76 15 09

**GOIERRI
AUTOGIDARIEN ESKOLA**



Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tf. 943 76 41 50 BERGARA

FUTBOLA

Bergarako gazte taldeak ezin izan zuten Portugaleteko Astileku taldea menderatu

Partiduan 1-0 aurretik zirela, epaileak balio barik utzi zuen etxeko gol bat. Partidua amaitzeaz zegoela Portugaletekoek berdinketa egin zuten

EDU MENDIBIL

Euskal Ligan ari den Bergara KEko gazte taldeak bana egin zuen joan den egubakoitzean Portugaleteko Astileku taldearen aurka. Fernando eta Jabier Oregiren mutilek partidu bakarria irabazi dute eta sailkapenean azkenaurreko postuan daude.

Bergararrek ez zuten zortirik izan egubakoitzeko partiduan. Beñat Pérezek egindako gol bati esker aurreratu ziren markagailuan, 65. minutuan, eta epaileak 2-0koa izan zitekeena balio barik utzi zuen, Pérez golegilea jokoz kanpoko posizioan zegoela adierazita. Fernando Oregi entrenatzailea harrese azaldu zen epailearekin, Fernandoren ustetan jokalaria ez zegoen-eta jokoz kanpo. Partidua amaitzeko bost minutu falta zirela, bizkaitarrek berdinketa egin zuten.

Gazte taldeak aurreko denboraldian lortu zuen Euskal Ligara igotzea. Fernando Oregi entrenatzailearen esanetan, "lehen aldia da Bergarak maila horretan taldea izatea lortzen duela, eta mutilek ondo erantzun dute orain arte. Jokaturako zortzi partiduetatik, lau berdindu ditugu eta edozeini aurre egiteko gauza garelako erakutsi dugu. Hala ere, berdinketekin puntu bakarria lortzen da, eta sailkapenaren beheko aldean gaude".

Esan bezala, Bergarak partidu bakarria irabazi du orain arte, Agorrosinen Zaramagaren aurka jokaturakoa. Oregiren ustetan, "helburua kategoriari eustea da, eta, horrela jarraitzen badugu, las-



Bergarako gazteek aukera paregabea galdu zuten egubakoitzean denboraldiko bigarren garaipena lortzeko.

ter etorriko dira emaitza onak. Taldean konfiantza daukat". Oraingo aste bukaeran Bergarak Donostiako Lengokoak taldeari bisita egingo dio.

HIRU PARTIDU ASTE BUKAERAN

Preferente mailako taldeak Zestoaren aurka jokatu du, zapatuan, Agorrosinen, 15:30ean. Jarraian nesken taldeak Iintxaren aurka neurtuko ditu indarrak Ipintzan, 17:30ean. Domekan, bigarren mailako gazte taldeak Urki hartuko du Ipintzan, 12:00etan.

Agorrosinen jokatu beharra, oztopoa

Federazioak Euskal Ligan ari diren taldeak (hamasei dira txapelketan) belarrezko edo belar artifizialezko zelaietan jokatzera behartzen ditu. Bergarakoen kasuan, neurri hori taldearen kaltetan dela uste du Fernando Oregi entrenatzaileak: "Beste talde batzuk ohituta daude euren zelaietara, baina ez da gure kasua, ez daukagulako Agorrosinen entrenatzeko aukerarik. Ipintzan egiten ditugu entrenamenduak, aste barruan, eta Agorrosin

partidua izaten dugunean erabiltzen dugu. Askotan, etxetik kanpo jokatzera bezala da guretako, aurkaria baino baldintza txarra-goetan gaudela esango nuke".

Kategoriari eustea da Bergararen helburua. Liga amaieran lau talde jaitziko dira mailaz. Oregi anaiek 22 jokalaririk dituzte taldean, eta horietako asko gazte mailan lehenbiziz ari dira. Hemendik liga amaierara arte gogor borrokatu beharko dute guztiek.

Herriko 170 korrikalari inguru izango dira Behobia-Donostian

E.M.

Etzi, domeka, Behobia-Donostia herri lasterketa jokatu da. Gipuzkoan jokatzeko den lasterketarik jendetsuena dugu Behobia-Donostia, eta irteeran Bergarako 170 korrikalari inguru izango dira.

Behobia-Donostia herri lasterketan 10.000 kirolari baino gehiagok parte hartuko dute etzi, domekan. Gorpil-aulkietan doazen atletendako proba goizeko 10:30ean hasiko da, eta 11:00etan, berriz, gainerako atleten ordua iritsiko da.

Bergaran 150 lagunek eman dute izena Behobia-Donostia proban parte hartzeko, baina kopuru horri Fortuna elkartean izena eman dutenak gehitu behar zaizkio. Iaz bezalaxe, datorren astean argitaratuko den *Goienkaria*-n Debagoieneko partaideen denborak eta sailkapenak aurkituko dituzue.

BIXENTE PAGALDAIRI OMENALDIA

Bestalde, datorren azaroaren 24an, domeka, Donostiako Maratoia jokatu da. Aurtengoa 25. aldia izango da, eta Bixente Pagaldai angiozartarra guztietan izan da orain arte. Maratoi korrika-

lariei dagokienez, aitzindarietako bat dugu. Bixente Pagaldairi markarik onena 1984ko aldian egin zuen (2 ordu eta 29 minutu). Aurten ere irteeran izango da Pagaldai, eta hura izango da protagonista nagusietako bat, zalan-tza barik. Hori dela eta, haren lagunek omenaldi-bazkaria prestatu diote egun horretarako. Omenaldi-bazkaria Angiozarko Ortzi jatetxean izango da, 15:00etan, Donostiako maratoitik bueltan. Bazkarira joan nahi dutenek Ortzi erretegian (943 76 22 68 telefono zenbakia) eman beharko dute izena, azaroaren 15a baino lehen.



Bixente Pagaldai Donostiako Maratoia 25. aldiz korrituko du aurten.

PILOTA

Gipuzkoako Txapelketako partiduak gaur eta domekan pilotalekuan

Gabonetako Txapelketan herriko 100 bat pilotari arituko dira lehia

E.M.

Gipuzkoako Kluben Arteko Txapelketaren barruan, pilota partiduak izango dira gaur eta etzi Udal Pilotalekuan. Bestalde, Gabonetako Txapelketa ere abian da dagoeneko: adin askotariko 100 bat pilotari arituko dira lehia abenduaren amaierara arte.

Gaurko jaialdia 19:10ean hasiko da, eta lehenbizi, infantil mailako herriko bi bikote izango dira aurrez aurre: Gipuzkoako Txapelketako partiduan Mikel Muxika-Antxon Hernández eta Jon Pérez-Beñat Etxezarreta bikoteak izango dira aurrez aurre. Horren ondoren, beste hiru partidu jokatuko dira: kadete mailan Xabier Azurmendik eta Jon Larrañagak Hernaniko bikotearen aurka jokatuko dute; senior banakoan Edu Samaniegok Real Sociedad taldeko ordezkariaren aurka neurtuko ditu indarra; eta, jaialdia bukatzeko, Ander Muguuruzak eta Igor Gutiérrezek Añorgako pilotariak izango dituzte aurrez aurre lehen mailako seniorretako norgehiagokan.

GABONETAKO TXAPELKETA, ABIAN

Domekako jaialdia hasteko Gabonetako Txapelketako hiru partidu izango dira, 11:00etatik aurrera. Gabonetako Txapelketan 95 pilotari ari dira lehia, hainbat mailatan: 75 gaztetxo infantil mailara arte, zortzi lagun kadete mailan, lau gazte mailan eta zortzi seniorretan. Partiduak banaka jokatzen dira, eta finalak Gabonetan izango dira. Reyes Azkoitia Bergara KEko Pilota Saileko ordezkariaren esanetan, "azken urteotan txapelketak harrera ona izan du bai pilota-



Muguuruzak eta Gutiérrezek Añorgako bikotearen aurka jokatu dute gaur.

rien eta bai ikusleen partetik. Helburua pilotarekiko zaletasuna suspertzea da, eta, aldi berean, gaztetxoei zuriz jokatzeko aukera ematea, euren burua pilotari ikus dezaten. Ilusio ikaragarria

Gabonetako Txapelketak pilotarekiko zaletasuna pizteko helburua du

izaten dute gehienek pilotalekuan jokatzeko".

Domekan beste bi partidu izango dira: gazte mailan Asier Larrañaga eta Ibai Altuna Mundarro ordezkariaren aurka arituko dira, eta bigarren mailako seniorretan Igor Apraiz eta Beñat Iñarra tolarren kontra arituko dira.

Bestalde, azken jardunaldian Apraizek eta Iñarrak 22-10 galdu zuten, Hernanin, eta Muguuruzak eta Gutiérrezek irabazi egin zuten, Azpeitian (8-22). Kadete mailan, berriz, Aitor Osak eta Xabier Azurmendik 22-5 galdu zuten, Tolosan.

Futbito txapelketako 13 partidu astebukaeran Labegaraietan

E.M.

Labegaraietako futbito txapelketak aurrera darrai eta astebukaeran jardunaldi berri bat jokatu dako kiroldegian. Zapatuan eta domekan 13 partidu izango ditugu Labegaraietan. Antolatzaileek nahi baino jardunaldi gutxia-

go jokatu dira orain arte, Agorrosingo igerilekuak itxi ondoren kiroldegiko kantxa eta aldagelak erabiltzeko aukera gutxi dagoelako. Gauzak horrela, baliteke liga txapelketa itzuli bakarrera jokatzeko aurtengo denboraldian. Aukera hori aztertzen dihardute antolatzaileek.

Jakingo duzue, bi multzotan banatutako 28 talde ari dira lehia aurtengo edizioan.

A multzoan Bayer eta A Ze Flaxa taldeak ditugu indartsuak orain arte eta B multzoan, berriz, Fac eta Bar Bedarreta taldeek euren nagusitasuna azaldu dute jokatu partiduetan.

JOKATZEKOAK

Bi saskibalo partidu eta eskubaloiko bat bihar, zapatua, Labegaraietako kiroldegian

Bihar, zapatua, bi saskibalo partidu jokatu diko kiroldegian: eguerdian, 12:15ean, lehen mailako kadete taldeak Easoren aurka jokatu diko eta arratsaldean, 19:15ean, senior taldeak Azpeitiko Jostaldi hartuko du.

Bestalde, senior mutilen eskubalo taldeak Askartzaren aurka jokatu diko bihar, zapatua, 17:30ean, kiroldegian.

Eski eta mendi materialaren azokarako material bilketa

E.M.

Azken urteotako ohiturari jarraituz, Pol-Pol Mendizale Taldeak eski eta mendi materialaren azoka antolatuko du azaroaren bukaeran. Material bilketa datorren astetik aurrera egingo dute.

Pol-Polek antolatutako azokan eski eta mendi materiala izaten da salgai, prezio interesgarrian, gainera. Hortaz, zerbait saltzeko interesa dutenek Pol-Polera jo dezakete. Material bilketa azaroaren 11tik 21era bitartean egingo dute, astelehenetik eguenera, 19:00etatik 20:30era.

Jasotako materialarekin azoka irekiko dute azaroaren 25etik 30era, egunero, 19:00etatik 20:30era eta azken egunean, hilaren 25ean, bi orduz, 18:00etatik 20:00etara. Mendizaleek salerosketa egiteko aukera izango dute. Argibideetarako, 943 76 48 51 telefono zenbakira dei dezakezue.

MENDI IRTEERA HILAREN 17AN

Bestalde, Letonara eta Murgiara (Araba) mendi irteera iragarri dute azaroaren 17rako. Irteera 08:00etan izango da, frontoitik, eta partaideek Murgian bazkalduko dute. Txartelak Pol-Poleko bulegoan eskuratu ahal izango dira, astelehenera arte (hilak 11).



Eski eta mendi materiala izango da Pol-Polek antolatutako azokan.

LABEGARAIETAKO FUTBITO TXAPELKETA

ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK

ZAPATUAN, BARRUAN

09:30: La Quinta-Las p. de Satan. Fac
10:30: Komando Piperrak-Fac. La Quinta
19:30: Dedo Pafarru-De Ore. Agirrebeña

ZAPATUAN, KANPOAN

16:00: Etengabe-Torrekua. Ganbara
17:00: Ganbara-Aterpe. Torrekua

DOMEKAN, BARRUAN

09:30: Agirrebeña-Txipiron. Errotagain
10:30: Errotagain-Mongatxurak. Argandol.
11:30: Argandol. Belengua. A Ze Flaxa
12:30: Bildurbarek-A Ze Flaxa. Belengua
16:00: TNT-Zipote Nucleico. Pagomendi
17:00: Pagomendi-Bedarreta. Bayer
18:00: Dedopafarru-Bayer. Getokuak
19:00: Getokuak-Artusamak. Dedopafarru
20:00: Pirulotarrak-Dedopafarru. Artusamak.

Babeslea **SPORTLAND** FORUM SHOPS www.forumsport.com
KIROLA ZEURE ESKURA Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate

Itziar Lazkano aktoreak 'Dulce' izeneko emagaldur nagusi baten bizitza kontatuko du

Txalo Produzekzioen 'Dulce Puta' lana gaur, Zabalotegin

MONIKA BELASTEGI

Txalo Produzekzioen 'Dulce Puta' ikusteko aukera izango da gaur, egubakoitza, 22:30ean, Zabalotegi aretoan. Carles Valls-en istorio bat da, eta Adolfo Fernándezen zuzendaritzapean, 'Dulce' izeneko puta baten bizitza antzetzuko du Itziar Lazkano aktoreak.

Dulce-k bere bizitza zer izan den kontatuko die ikusleei eta haren lagun bakarrari, *Perlita* katuari; zuzenean berba egingo die, lasai eta gozo. Bere gizon *Macario*-z egingo du berba. Makarra izatek gaixo izatera pasatu, eta hogeita hamar urtez zaindu behar izan zuena. Emagaldur lana egiten zuen etxeaz ere jardungo du; Teresita irakasle zorrotzaz ere bai, baita noiz edo noiz mila pezetakoa uzten zion tabernako Joaquinez ere.

Horien guztien gainean berba egingo du *Dulce*-k antzezlanean, baita bizitzan barrena igaro diren beste hainbat pertsonaiez ere.

Urteek aurrera egin dute, eta auzune txinatarreko puta zaharra da dagoeneko *Dulce*; gorrotaren aurka borrokatzen duen beste biktima bat, baina ez dago dramatik antzezlanean; izan ere, iragana baino ez dago *Dulce*-ren buruan: ez du injustiziaz, zori txarraz, pobreziaz, miseriak edo umiliazioak dramatizatzen. Antzezlanak komedia bizi eta malenkoniatsu gisa definitu dute adituek.

ITZIAR LAZKANO AKTOREA, LAN HORREGATIK SARITUA

Itziar Lazkano aktoreak protagonistatuko du Carles Valls-en *Dulce Puta* istorioa, eta lan horregatik Aktore Errebelazioaren Ercilla saria jaso du. Horrez gain, Aktoreen Elkartek emandako



Injustiziaz, miseriak eta umiliazioak jardun arren, 'Dulce'-k ez du dramatizatzen.


'Dulce'-k bere bizitza kontatuko die ikusleei eta haren lagun bakarrari, 'Perlita' katuari

Aktore Onenaren saria ere jaso zuen, 2001. urtean. Lanaren zuzendariari dagokionez, Adolfo Fernández da, eta eszenografia, berriz, José Ibarrolarena.

Emanaldia gaur, egubakoitza, izango da, 22:30ean, Zabalo-

Urteek aurrera egin dute eta 'Dulce' auzune txinatarreko puta zaharra da dagoeneko

tegi aretoan. Prezioari dagokionez, sei euro balio du sarrera arruntak. 26 urtetik beherakoendako sarrerak, aldiz, 4,50 euro, eta 17 urtetik beherakoendako sarrerak, berriz, 2 euro balioko ditu.



UNEDeko sariketan hautatutako lanak

UNEDeko 25. urteurrenaren barruan antolatu zuten Pintura Lehiaketako 15 lan daude ikusgai kultura etxean, eguaztenara arte.

Hamabost lan horien artean saria eskuratu zuten hiruak daude: Valentziako Antonio Carreteroren *Hora Punta* lana (lehen saria); Bilboko Pedro Ismaelen *Pelotas* lana (bigarren saria); eta Usoa Mendikute bergararren *Ama* lana (hirugarren saria).

Sari banaketa egubakoitzean izango da, 19:00etan, udaletxeko areto nagusian.

'Dido&Eneas' opera kontzertu bertsioan bihar, San Pedron

MONIKA BELASTEGI

Conductus Ensemble taldeak Henry Purcell konpositorearen *Dido&Eneas* opera egingo du kontzertu bertsioan bihar, zapatua, 20:00etan, San Pedro parrokian. Emanaldirako sarrera doan izango da.

Dido&Eneas Henry Purcell musikariak sortutako opera bakarra da. Kontakizunak Virgilioren *Eneida* kontakizunean du oinarria; IV. liburuan, batez ere: *Eneas* Cartagora iritsi berri da, eta *Dido* erreginak Troya suntsitzea agindu duela jakingo du. Horren ondorioz, Troyatik ihes egin beharko du *Eneas*-ek, baita haren familiak ere, *Dido* erreginak gobernaturako hirira iritsi arte.

Opera hori kontzertu bertsioan egingo du Conductus Ensemble taldeak San Pedron.

Bost musikari eta hamabi kantari arituko dira: hiru soprano, hiru altu, bi tenore eta hiru baxu. Pertsonaia nagusien kasuan, Ainhoa Zubillaga *Dido* izango da eta Jesus García *Eneas*. Zuzendaria, berriz, Andoni Sierra izango da.

ABIAPUNTUA, MUSIKA BARROKOA

Musika Barrokoa lantzeko asmoarekin Ensemble Fiat Musica talde instrumentala eta Capilla Ad Litteram talde korala sortu zituen Andoni Sierra musikariak, 1999. urtean. Denborarekin, baina, bi taldeek bat egin eta Conductus Ensemble taldea eratu zuten.

Taldea Euskal Herriko ahots eta instrumentu talde garrantzitsuenetakotik etorritako 30 musikariz osatuta dago. Egiten duten musikari dagokionez, Bach-en, Purcell-en eta Pergolesiren lanak jokatzen dituzte, beste batzuen artean.



Euskal Herriko ahots eta instrumentu onenariakoek osatzen dute taldea.

LABUR

Astelehenean hasiko da Pol-Pol argazki taldeak antolatutako argazki ikastaroa

Hilaren 11n, astelehenean, hasiko da, eta hurrengo seiak honako egunetan izango dira: 12an, 13an, 18an, 19an, 20an, 25ean, 26an eta 27an, 19:15etik 21:15era, taldeak Zabalotegi 5ean duen egoitzan. Izena emateko epea zabalik dago eta gehienez 20 laguneko taldea osatuko dute. Prezioa 40 euro da, eta ikasle eta langabeendako, 30 euro. Izena emateko kultura etxera jo beharko da. Argibide gehiagorako, deitu 943 76 30 90 telefonora (Benito).

Josu Okina bergararrak margo erakusketa ireki du Azpeitiko Antxieta Etxean

Astelehenean ireki zuen Josu Okinak erakusketa eta azaroaren 22ra arte egongo da ikusgai. Hogeita hamar margolanek osatzen dute bakarkako erakusketa hori eta Azpeitiko Antxieta Etxean (Elizkalea 40) dago ikusgai ondorengo ordutegian: astelehenetik egubakoitzera, 18:00etatik 20:00etara.

Payasolandia izeneko zirkoak emanaldia egingo du bihar, zapatua, Udal Pilotalekuan


Emanaldi bakarra izango da, 17:30ean, eta ohiko trapezista, orkari, pailazo, malabarista, eta akrobatez gain, telebistan eta zinema arrakastatsu egin diren pertsonaia ugari ere egongo dira: besteak beste, *Teleturbiak*, *Simpson* familia, *Pokemon* eta *Harry Potter*-en eskola magikoa.

ARREGI AROZTEGIA



Sukaldeak
Arozlan mekanikoak
Ateak
Horma-armairuak

Tarimak eta Parketak
Neoprenozko juntadun
egurrezko leihoak
PVCzko leihoak



Tailerra Urteaga, 20. 943 76 11 73 Erakusketa Bidekurutzeta, 38. 943 76 31 03

GAZTAINA ERRE EGUNA AZAROAREN 15EAN GAZTAINAK JATEKO GERTU!



Arratsaldeko 4:00etan
ikasle eta irakasleok
patioan elkartuko gara
gaztainak jateko.

GAZTAINA ERREAK

Gaztainak erreko ditugu
Danbolin zaharrearantz gure eskolan, je!

Gaztain erreak jateko gu beti prest gaude
Bai horixe, je!

Danbolinaren inguruan
Denok bero bero puzkar gero, je!



SAN MARTIN

herri ikastetxea

B. Laskurain 25
Tel. 943 76 21 47
182 posta kutxa

20570 Bergara

ZAHARREN ETXETIK



ARTXIBOA

Argazkian, joan den urteko ikasturtean antolatutako Memoria lantegian parte hartu zuen talde bat.

Memoria lantegia, San Joxepen, azaroaren 21etik urtarrilaren 20ra

EDU MENDIBIL

San Joxepe elkarteak antolatuta, Memoria lantegia izango da azaroaren 21etik urtarrilaren 20ra bitartean. Eskolak astelehenera eta eguenetan izango dira; ordutegia: 16:00etatik 17:30era. Izena emateko epea astelehenera arte egongo da zabalik (azaroak 11).

La Caixa Fundazioaren eta Gizartekintzaren laguntzarekin, San Joxepe memoria lantzeko lantegia antolatu du aurten ere. Aurreko ikasturtean 35 lagunek jardun zuten Memoria lantegian. Oraingoan ere Hirugarren Adineko Komunitate Institutuak (ICTE) emango du ikastaroa, eta, iaz bezala, Raquel Barcenilla psikologoa arituko da irakasle lanetan. Eskolak, esan bezala, astelehenera eta eguenetan izango dira, San Joxepen, 16:00etatik 17:30era. Izenematea (26 euro) azaroaren 11 baino lehen egin beharko da, San Joxepe erretiratuen elkartearen berran.

Barcenillak esperientzia luzea du horrelako ikastaroak ematerako orduan, eta hiru urte daromatza ICTE lanean. Haren hitzetan, "normala da adin batetik aurrera gauzak ahazten hastea. Hala ere, kasu gehienetan ez da larritzekoa. Kontua da askok ezagutzen dugula alzheimer gaixotasuna jasan duen norbait, eta jendea asko kezkatzen da horrekin. Jendeak ez du izan behar horren beldurrik, ahazte txiki horiek ez dira eta zertan dementzia baten eragile izan behar".

Gizonen partaidetza

Beste urte batzuekiko esperientziarekin konparatuta, gizonen partaidetzak gora egin zuen azken aldiz Memoria lantegia antolatu zenean. Oraindik ere San Joxepen antolatzen diren ekitaldi gehienetan emakumeak izaten dira nagusi. Helburuetako bat elkartearen dinamikaren gizonen partaidetza emakumeen parekoa izatea lortzea da.

tasuna jasan duen norbait, eta jendea asko kezkatzen da horrekin. Jendeak ez du izan behar horren beldurrik, ahazte txiki horiek ez dira eta zertan dementzia baten eragile izan behar".

MEMORIA ENTRENATZEKO ARIKETAK

Ikastaroan, besteak beste, ikus arreta eta entzumenezkoa landuko dituzte eta, era berean, hizkuntzarekin zerikusia duten ariketak, oroimen estrategiak eta eguneroko ahazteak aztertuko dituzte. Barcenillaren esanetan, memoria entrenatzeko ariketak oso baliagarriak izan daitezke, egunero izaten ditugun ahazteak saihestearren. Giltzak non utzi ditugun, lagun baten telefono zenbakia, eta horrelakoak sarritan ahazten ditugu. Oroimena galdu baino gehiago, adinarekin arreta galduz doala da arazo nagusia. Gauzak ez ahazteko ideiak lotzea primeran dator. Hitzekin eta zenbakiekin loturak erraz egin ditzakegu. Memoriaren estrategiak erabiltzen jakin behar dugu, ahazte txikiak saihesten nahiko erraz ikas daiteke eta".

Nagusiei zuzendutako informatika ikastaroak

E.M.

San Joxepeko Informatika Gelan hainbat ikastaro eskainiko dituzte azaroan eta abenduan. Ordenagailu bidezko Marrazketa ikastaroa azaroaren 20tik abenduaren 19ra bitartean izango da, martitzenetan eta eguenetan, 17:00etatik 19:00etara.

Era berean, Word sakontze ikastaroa azaroaren 25ean hasiko da, eta astelehenera eta eguztenetan izango dira eskolak, 11:00etatik 13:00etara. Ikastaroa abenduaren 18an bukatuko da.

Azkenik, azaroaren 25etik abenduaren 18ra bitartean irudiak eskaneatzeko teknikak ikasteko aukera izango da. Eskolak astelehenera eta eguztenetan izango dira, 17:00etatik 19:00etara. Hiru ikastaro horiek hamasei ordukoak izango dira.

INFORMATIKA GELA, ZABALIK

Informatika Gelak gero eta erabiltzaile gehiago ditu San Joxeko bazkideen artean. Gelan dauden ordenagailuak erabiltzeko San Joxepeko Harrera Gelan izena eman behar da aurretik.

Nagusiendako Ikasgela, urtarrilean abian

E.M.

Bergarako UNED ikastetxearekin lankidetzan, Nagusiendako Ikasgela urtarrilean jarriko dute abian. Plangintza horren helburuak hiru dira: batetik, nagusien kolektiboan kultura bultzatzea; bestetik, bizi kalitatea hobetzea eta zahartze osasungarri baten aldeko urratsak ematea; eta, azkenik, nagusiek kultura esperientzia berriak elkartrukatzeko topagunea sortzea.

Formazio iraunkorreko programaren barruan, hainbat materia lantzeko aukera izango dute interesatuek. Eskolak astean

behin izango dira, arratsaldean, 17:00etatik 20:00etara, hain zuzen. Lehen bi hilabetekoan giza harremanekin eta osasunarekin zerikusia duten materiak aztertuko dituzte. Hurrengo bi hilabetekoan, berriz, gure ingurua hobeto ezagutzeko bisitak antolatuko asmoa dago, eta, azkenik, Informatika Hastapen lantegia, Tai chi ikastaroa, pintura, musika eta beste hainbat izango dira aukeraren hirugarren hilabetekoan.

Hasiera baten, Nagusiendako Ikasgela azaroan hastekoa zen, baina antolatzaileek erabaki zuten urtarrilera arte atzeratzea egokiena zela.



UNED ikastetxearekin batera lankidetzan izango da San Joxepe.

MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

ETXAGI
JATETXEAAFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...Masterreka, 8
BERGARA
943 76 53 12AGIRREBEÑA
JATETXEABerritua
eta
handiagoa

- Berritua eta handiagoa: 90 lagunendako janlekua
- Eguneko menua, asteburuko menua eta karta
- Etxeko postreak
- Asteburuetan, mariskoa eta arraina, aurretik eskatuta

Ibarra kalea 2, Bergara. Telefono BERRIA: 943 76 21 45.

E, TXO!

KONTZERTUA
GAZTETXEAN

Bihar, zapatua, bi musika talderen emanaldia izango dugu Bergarako gaztetxean: Materia eta Numa-No-8 taldeen kontzertua izango dugu, 22:30ean.

ZINEMA EMANALDIA
EGUAZTENEAN

Astero moduan, datorren eguaztenean ere, hilak 13, film bat ikusteko aukera izango dugu gaztetxean. Oraingo honetan *Vértigo* filma eskainiko digute gaztetzekoek, 22:15ean.

ARARTEKOAREN
IKERKETA BEKA

Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte-talde ahulenetako bati dagokionez giza eskubideak zela eta zenbateraino aplikatzen diren ikertzeko beka emango du Arartekoak. Beka horren helburua da talde jakin bat edo eskubide multzo bat zein egoeratan dagoen aztertzea eta ezagutzera ematea.

Eskaerak aurkezteko epea azaroaren 25ean amaituko da. Informazio zabalagoa topatu ahal izango duzue www.euskadi.net webgunean edo telefono zenbaki honetara deituta: 945 42 08 88.

IDEIA BERRITZAILAEN
LEHIAKETA

Goimen elkarrekin Ideia eta Proiektu Berritzaileen Lehiaketa antolatuta du, *Baserría Bizirik* izenburupean. Goierrri eskualdean garatu ahal izango diren baserriarekin lotutako proiektuak izan beharko dute, eta eskualde hartan oraindik garatu ez den proiektu berria izan behar da. Azaroaren 15era arte dago proiektuak aurkezteko. Informazio zabalagoa, 943 16 12 44 telefonon.

GUREGAIK/ MUSIKA

Gazte Leiho Sorkuntza lehiaketa abian da

AINTZANE IRIZAR

Iparraldeko Gure Irratiak, Euskal Kultur Erakundeak, SACEMek eta Agorila diskotxeak III. Gazte Leiho Sorkuntza lehiaketa antolatu dute, eta abenduaren 20ra arte dago maketak aurkezteko aukera.

“Zure etxeko garajejan sortzen ari zareten musika kalitatezkoa dela uste baduzu... Euskaraz kantatzeko gogoia baduzu... Uste baduzu ez duzula sekula CDrik plazaratzeko aukerarik izango...” Horrelaxe hasi dute antolatzaileek lehiaketaren esku-orria, eta horrelaxe animatzen dituzte euskal musika taldeak lehiaketa horretan parte hartzera.

Esan bezala, abenduaren 20ra arte dago zabalik maketak aurkezteko epea.

Bi musika estilotan banatu dute lehiaketa: batetik, rock eta heavy musiken lehiaketa izango da; eta, bestetik, folk eta bestelako musikena. Horietako irabazle bakoitzaren CDa argitaratuko dute gero antolatzaileek.

Hainbat baldintza ezarri dituzte, lehiaketetan ohi denez: besteak beste, partaideek ez dute CDrik argitaratuta izan behar eta hitzak euskaraz izan behar dira; bestetik, maketak hiru kantuz osatutakoak izan beharko dira.

Epaimahaia urtarrilean elkartuko da, eta urtarrilaren 31n jakingo dugu irabazleak zeintzuk izan diren.



Irabazleek CDa grabatzeko aukera izango dute.

ARTXIBOA

LOTSABARIK/ Saioa Martínez

“Harropuzkeriak amorratu egiten nau”

AINTZANE IRIZAR

Azterketetan buru-belarri dabil Saioa, baina elkarriketarako tartetxoa ere hartu du. Irribarretsu etorri zaigu, gainera. Neska alaia dela esan digu, baita parrandazalea ere, jaien zain egoten den horietakoa.

• Txikitan, zer izan nahi zenuen?

Albaitari; izan ere, asko gustatzen zitzaizkidan animaliak; baina amak ez zidan lagatzen etxean animaliarik edukitzen.

• Hemendik 20 urtera zelan ikusten duzu zeure burua?

Lanean, eta familiarekin.

• Gurasoek zer errepikatzen

dituzte behin eta berriro?

Horrenbeste gauza esaten didate! Kalera irteten naizenean formal ibiltzeko, ikasteko, etxeko lanetan laguntzeko...

• Gurasoen kontrolpetik ihes egiteko taktika bat.

Aspektu horretan ez daukat kezarik; lagun guztioi antzerako askatasuna ematen digute. Dena dela, noizean behin *pelota* egitea taktika ona da.

• Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Familiari, lagunei eta jaiei; asko gustatzen zait parranda.

• Zure bertute bat?

Hori besteek esan beharko lukete, baina uste dut neska alaia naizela.

• Eta hutsune bat?

Oso burugogorra naizela.

• Zerk amorratzen zaitu?

Harropuzkeriak eta gezurrek.

• Zure gorputzeko atalik gustukoena?

Masailak.

• Jendeari, zeri botatzen diozu begia lehenengo?

Begiradari eta irribarreari, batez ere; baina baita gorputzari ere.

• Zer egiten duzu seduzitzeko?

Ezer ere ez; lagunak egiterako orduan ez daukat inolako arazorik, baina ligatzerakoan oso lotsatia naiz.


• Fantasia sexual bat. Zeinekin eta non?

Ez daukat fantasiarik.



ADINA: 16 urte • IKASKETAK: Batxilergoko lehen maila • ZALETASUNAK: Musika eta lagunekin irtetea • FILM BAT: ‘Enemigo público’
LIBURU BAT: ‘Egunero hasten delako’, Ramon Saizarbitoriaarena • MUSIKA TALDEA: Nickelback • KIROL TALDEA: Realá

TIRABIRAKA/ Peru Azkarate





BERGARA
Mikel Najera
Azaroaren 10ean 3 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Andoni.



BERGARA
Unai Etxarri
Azaroaren 8an 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Oier Rubio
Azaroaren 9an 17 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Jon Mujika
Azaroaren 4an 8 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Mikel.



BERGARA
Gorka Larrañaga
Azaroaren 7an 6 urte.
Zorionak eta muxu handi
bat! Josu eta etxeokak.



BERGARA
Ander Fuentes
Azaroaren 6an 6 urte.
Urte askotarako!
Ana eta familiakoak.



BERGARA
Maitane Mujika
Azaroaren 13an 8 urte.
Urte askotarako!
Jone eta etxeokak.



BERGARA
Unai Zubizarreta
Azaroaren 11n 4 urte.
Zorionak! Etxekoak,
Ainhoa eta Leire.



BERGARA
Erik Herran
Azaroaren 13an 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Idoia Herran
Azaroaren 12an 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Fran Martínez
Azaroaren 9an
urtebetetzea. Zorionak!
Koadrilakoak.



BERGARA
Felix Zubia "Sanpru"
Azaroaren 13an
urtebetetzea. Zorionak!
Koadrilakoak.



BERGARA
Andoni Moñux
Azaroaren 2an 5 urte.
Urte askotarako!
Etxeko guztiak.



BERGARA
Maika Jaso
Azaroaren 10ean 14 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Maialen Legorburu
Azaroaren 8an 17 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Asier Arriola
Azaroaren 13an 9 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Inazio.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
BERRIGARAREN bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. / Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. / Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, BERRIGARAn agertu ondoren.

Adi!

Argazkiak emateko lekuak:
Bergara: Berrigara, Irizar jaurégia,
Barrenkalea 33
Antzuola: Udal Liburutegia,
asteleheneretan 17:00etatik
19:00etara
Elgeta: Erosle-Baltxongua

ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

OILAGORRA TABERNA

Barrenkalea 21 BERGARA

BEHEKO TABERNA

Menestra
eta untxia dira
gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tf.: 943 76 55 74

GURIA Taberna

Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34

CAMACHO

Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35



INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telefono Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

PINTXO eta BOKADILAK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

IKUSBI

ALKANDORAK,
JERTSEAK, BAKEROAK
ETA OSAGARRIAK

Irala 5
BERGARA
943 76 53 09



943 76 20 61
BERGARA

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKORBEREZIBAR

Zein izen du 1948an sortutako Artekaleko elkarte honek?

GALDEDEBALDE

1.

Zein da Txalo Produkzioen *Dulce puta* antzezlaneko protagonista nagusia?

- A/ Adolfo Fernández.
- B/ Carles Valls.
- C/ Itziar Lazkano.

2.

Memoria lantzeko tailerra izango da San Joxepen. Zein da ikastaroko arduraduna?

- A/ Agustin Ozamiz.
- B/ Enrique Arriola.
- C/ Raquel Barcenilla.

3.

Zein da Bixente Pagaldaik Donostiako maratoiaren egindako markarik onena?

- A/ 2 ordu eta 29 minutu.
- B/ 2 ordu eta 19 minutu.
- C/ 2 ordu eta 13 minutu.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileen artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

NURIA PEREZendako izan da 30 euroko erosketa-txartela.

Zorionak, Nürria!

Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: **Arostegi** / Galde debalde: **1-C, 2-B, 3-B.**



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Jordan ardo gaztea

75 cl.ko hiru botila.

2,38€

396 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



PINTOREBERGARARRAKGAUR


Luis Laskurain

EDU MENDIBIL

Pinturarako zaletasuna txikitatik datorkiola diosku Luis Laskurainek (Bergara, 1951): "Mugimendu artistiko bezala pinturaren garrantziaz jabetu nintzen familiako giroari esker, eta gero, Simon Arrietak gidatzen zuen kolektiboaren eskutik pinturan hasi nintzen, 20 bat urterekin". Burgosen eta Valladoliden Arkitektura ikasten ziharduela, marrazketa eskolak hartu zituen. Haren hitzetan, "margolari baten formazioa ez da sekula amaitzen; etengabe ari da ikasten, eta ofizioa, berriz, lanean hartzen da. Erakusketak ikustea, esate baterako, aberasgarria da oso. Beste lanbide bat izan arren, margolaritzat dut neure burua. Ahal dudanean, Boluko estudioara joaten naiz". Eta eskolak ematen ditu Oñatin eta Arrasaten eskolak ematen.

Gaiei ez die garrantzi handirik ematen: "Nire margolanak natura hil tradizionalen oinarritutako konposizioak dira; paisaiak ere izan daitezke. Nire obsesioetako bat kolorearen bitartez argia lortzea da, margolana girotzea. Bestalde, nire konposizio askok abstrakzio eta surrealismo ukitua dutela esango nuke".

"Nire obsesioetako bat kolorearen bitartez argia lortzea da, margolana girotzea"




E.M.

- Ikastaro teoriko trinkoak **euskaraz eta gaztelaniaz**
- Ziklomotorreko lizentzia astebetean. **AZTERKETARIK GABE!**
- Izena ematean, **%10eko deskontua** Gazte Txartelarekin

Gaindi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin!

Telefonoa: 943 76 16 63. BERGARA



ARRAÑAGA

A U T O E S K O L A

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko azaroaren 8a / 133. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxe: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Felix Alonso antzuolarraren argazki erakusketa izango dugu aste bukaeran

AINTZANE IRIZAR

Oraingo aste bukaeran eta hurrengoan, Felix Alonsoren argazkiak ikusteko aukera izango dugu, Olanan etxean. Azkeneko hogeita bi urteotan herrian bertan ateratako 650 bat argazki osatutako erakusketa jarriko du Felixek bi asteburu hauetan.

Aspalditik dator kio Felix Alonsori argazkilaritzarekiko zaletasuna. Felixek berak azaldu digunez, argazki-kamerarekin irtezen da beti etxetik. Horrela, azkeneko 22 urteotan makina bat argazki atera ditu, eta orain arte etxean gordeta izan ditu. Orain, baina, "herritarrek argazki horiek ikusteko ordua iritsi dela iruditzen zait", esan digu Felixek.

Horregatik, argazkiak ikusgai jartzea proposatu zien Felixek Udaleko arduradunei, eta datozen bi aste bukaeretan egingo dute erakusketa, Olanan etxean. Kiñu argazki dendaren laguntza ere izan du Felixek. Goizez 12:00etatik 14:00etara eta arratsaldez 18:30etik 20:30era egongo da zabalik. Guztira, 650 bat argazki egongo dira erakusketan, 1979. urtetik hona ateratakoak.



1986an herriko jaietan Felixek ateratako argazkia.

ARGAZKIAK ESKURATZEKO AUKERA

Erakusketan jarriko dituen argazki guztiak, esan bezala, herrian bertan ateratakoak dira. Eta horietatik gehientsuenak herriko jendeari ateratakoak dira: jaietan edo herrian egindako hainbat

ekitalditan ateratakoak; paseoan ari den lagun bati edo mezatatik irtetera doan emakume talde bati ateratakoak... Hau da, denerrako argazkiak egongo dira ikusgai; hori bai, beti ere, herriko jendeari ateratakoak.

Felixen esanetan, erakustez gain, jendeari argazkiak eskuratzeko aukera emateko ordua ere iritsi da. Horrela, argazki erakusketan bertan eskaerak jasotzez arduratuko den pertsona bat izango da.

LABUR

Antzuola-Aiherra Elkartasun Eguna azaroaren 17an

Hurrengo astean, domekan (azaroak 17), ospatuko dute Antzuolaren eta Aiherraren arteko Elkartasun Eguna, Aiherran. Nafarroa Behereko Baigorri, Banka, Aldude eta Urepele herriak bisitatu ahal izango dituzte antzuolarrek. Hara joateko autobusa antolatuko dute, eta hilaren 14a baino lehen eman behar da izena, udaletxean. Nagusiek 15 euro, gazteek 6 eta umeek 4 euro ordaindu beharko dute.

Elkartasun egun horrekin lotuta, azaroaren 12an, Hazparneko Ikastolaren ekimenen gaineko berbaldia egingo du ikastolako arduradun batek, Olananen, 19:30ean.


Aiherrako umeak Hazparneko ikastolara joaten dira, eta elkartasun egunarekin lotuta, Hazparneko ikastolari laguntzeko Idolaz elkarrearen kontu korrontean sartu ditzakezue dirui laguntzak.

Astehelenean, alegazioak egiteko azken eguna

Antzuola Udal Etxegintzako etxebizitzaren erosle izango direnen behin-behineko zerrendak ikusgai daude azkeneko asteotan. Datorren astehelenean, azaroaren 11n, bukatuko da zerrenda horien gaineko alegazioak aurkezteko epea.

Astehelena bitartean aurkeztutako alegazio guztiak aztertu ondoren, behin betiko zerrenda onartu beharko du Udalak. Behin hori onartuta, erosle bakoitzari zein etxebizitza egokituko zaion erabaki beharko dute. Horretarako, datorren zapatuan, azaroaren 16an, zozketa egingo dute Udaleko arduradunek.

Dagoeneko hasita daude etxebizitza multzoa eraikitzeke lanekin, eta hemezortzi bat hilabete barru lanak amaituta egotea espero dute. Aurreko bi etxebizitza multzoen berdina izango da hirugarren hori ere.



Zumarragarako bidean, Antzuola

Herritar bati baino gehiagori entzun ahal izan dizkiogu azkeneko asteotan Bergarako saihasbidearen gaineko hainbat kexa: Bonbuluko bidegurutzea arriskutsua dela, saihasbideak noranzko bakoitzerako bi karril beharko lituzkeela... Baita beste kexa bat ere: Bergarako Labegarietan dagoen saihasbiderako sarreran Zumarraga besterik ez du jartzen. Antzuola ez dute aipatu ere egiten. Eta gure herria seinaleztatu beharko luketela uste dute batek baino gehiagok./A.I.

IKASTAROA

Erretiratuendako Informatika ikastaroa antolatu dute

AINZANE IRIZAR


Antzuolako Udaleko Ongizate Sailak herriko erretiratuendako Informatika ikastaroa antolatu du datozen asteetarako. Herri Ikastetxeko Informatika Gelan eskainiko dute ikastaroa, eta informatika ezagutzuz joateko aukera izango dute parte hartzaileek.

Azaroaren 18an (astelehena) hasiko da erretiratu zuzendutako Informatika ikastaro hori, eta abenduaren 11n bukatuko dute. Astelehenetan, eguaztenetan eta egubakoitzetan eskainiko dute ikastaroa, Herri Ikastetxeko Informatika Gelan, bi ordu egunean. Hogei orduko ikastaroa izango da, eta Windows eta Word programen gainekoa izango da.

Azaroaren 12a baino lehen eman behar dute izena interesatuek, udaletxean, eta hamabost euro ordaindu.

INFORMATIKARA HURBILTZEKO

Lehenengo aldia da Antzuolan era horretako ikastaro bat antolatzaren dutena. Gizarte Ongizate Sailako arduradunen helburua da



Informatikarekin lehen hartu-eman izateko aukera dute erretiratuek.

informatika erretiratu gerturatzeari. Euren esanetan, "hasierako beldurrak uxatu eta ordenagailuekin lehen hartu-eman izateko aukera eskaini" nahi die-

te adineko herritarrei. Izan ere, gizartean gero eta erabiliago den tresna hori erretiratuendako ere lagungarria eta erabilgarria izan daiteke.

ZINEMA

Domekan hasiko dira zinema emanaldiak

AINZANE IRIZAR

Etzi, domeka, arratsaldean hasiko dituzte aurtengo ikasturteko zinema emanaldiak, *Harry Potter* film arrakastatsurekin, hain zuzen ere. Horrela, Aste Santu ingurura arte, domeka arratsaldero film bat ikusteko aukera izango dugu, 16:30ean.

Harry Potter film entzutetsu eta arrakastatsurekin ekingo diote herriko zinema emanaldiei etzi, domeka, 16:30ean, Olaran etxeko aretoan.

Aurtengo ikasturtean ere, aurreko urteetan bezalaxe, Aste Santuko oporraldi ingurura arte, astero-astero eskainiko dute film bat.

Antolatzaileen esanetan, euskarazko filmei lehenetsua eman nahi diete. Horretarako, Durangoko Azokan hainbat bideo erosteko asmoa dute, ohi duten moduan; kontuan hartu behar dugu, gainera, film gehientsuenak umeei eta gaztetxoei zuzendutakoak izaten direla. Bitartean, baina, gaztelaniazko filmak eskaini beharko dituzte.

Etzi, esan bezala, *Harry Potter* filma eskainiko dute. Datorren astean, berriz, azaroak 17, *Monstruos*, S.A. filma ikusteko aukera izango dugu. Azaroaren 24an, berriz, *Monster Rancher II* filma eskainiko digute.

OLARAN ETXEAN

Maristen eraikineko lanak direla-eta, toki berria estreinatuko dute aurtengoa; esan bezala, Olaran etxeko aretoan izango dira zinema emanaldiak, beheko solairuan, hain zuzen ere, erakusketak eta bestelakoak egiten dituzten tokian. Horretarako, egokitu egingo dute aretoa: pantaila bat eta eserlekuak jarriko dituzte.

Toki aldaketa hori, baina, ez da aurtengo berritasun bakarra izango. Izan ere, Alaitz Jauregi eta Aitziber Goñi orain arteko arduradunekin batera, beste bi lagun hasiko dira zinema emanaldietan lanean: Iraia Gabilondo eta Goiatz Agirre, hain justu. Datorren ikasturteari begira, Alaitzek eta Aitziberrek zinemako ardurak lagatzeko asmoa dute; Iraia eta Goiatz izango dira, bada, arduradun berriak datorren urtetik aurrera.

HERRITARREN HITZA / Jone Lete · Ikaslea

Zer nahi dugu herriarentzat?

Hemen idazteko aukera eman zidatenean, dudarik gabe baietza eman nuen. Herrian egiten den proiektu batean parte hartzea nahi nuen, batez ere gauza gutxi dagoelako herrian eta dagoena mantentzea eta indartzea egokia iruditzen zaidalako. Nire iritziak azalera-zeak inori kalterik egingo ez diola uste baitut. Gaur lehenengo aldia da hemen idazten dudana eta gazte baten ikuspuntutik herria nola ikusten dudana azaltzen saiatuko naiz.

Antzuola herri txikia da eta hainbat hutsune badaude,

jendea elkartzeko leku faltak ugariak dira, ez dago kultur etxerik, gaztetxerik... eta gauza gehiagorekin luzatu ninteke. Baina ondo pentsatuz benetan beharrezkoak al dira guzti hauek?

Nire erantzuna ezezkoa balitz, agian herritik botako nindukete. Egia esan ez dut ukatzen herrian infraestruturak eskasak daudenik baina benetan hau guztia lortu nahi



"Herri mugimendu gutxi dagoela uste dut"

badugu lana egin beharra dago. Behetik lanean hasten bagara ziur nago etorriko direla emaitzak baina horretarako elkartasuna behar dugu. Elkartu eta lana egin. Alferrik dira lokalak herritarrok etekinik ez badiogu aterako. Beraz lokalik ez badago ere, hasi gaitzen elkartzen eta lana egiten.

Herri mugimendu gutxi dagoela uste dut, gazteok ez

gara elkartzen eta ez dugu lana egiteko borondateirik erakusten. Borondatea baldin badugu eta lanerako gogoia erakusten badugu etorri beharrekoak etorriko zaizkigu. Horretarako ezin gara egon norbaiten edo zerbaiten zain. Herri mugimendua sortu beharko genuke eta herria ez dagoela hilik erakutsi eta sinestarazi. Hau lortzeko lehenengo guk geuk sinistu beharko dugu eta aurrera ilusioz begiratu. Ez gaitzean bada pasibitate hutsean erori, elkar gaitzean eta borroka dezagun bizitza eta indar gehiago duen herriaren alde.

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA

Azaroak 10
12:00: Antzuola-Ondarroa (Gazteak)
16:00: Antzuola-Aretxabaleta (2. erreg.)

PILOTA

Azaroak 9 (Gipuzkoako Txap.)
18:00: Olalde-Azkoitiako (eskuz inf.)
Ondoren: Olalde-Lagunak (eskuz gazt.)
Ondoren: Olalde-Illunpe (eskuz nag.)

EMAITZAK

FUTBOLA

Antzuola 3 Aretxabaleta 1 (Gazt.)

PILOTA

Gipuzkoako Kluben Arteko Txap.
Olalde-Aztatarrak (palaz nag.) - 35-31

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

Tomas Gezalaga
Apainketarako eta
industriarako pinturak
Paper margotuak
Moketak eta tapizatuak
Kalegoi 21
Tf. eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

GAILUR
taberna eta
gozotegia
Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tf. 943 78 70 32

Tomas Gezalaga
Zoruen kuxtillatu
eta
barnizaketa
Kalegoi 21
Tf. eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

ANTZUOLA
Apainketak eta
isolamenduak
Pladurrezko dibisioak
Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Billegia: 943 78 70 40

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2002ko azaroaren 8a / 117. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

KZGunea, webgunea eta argazki artxiboaren aurkezpena domekan

OXEL EROSTARBE

Domekan, eguerdiko ordu batean, webgunea, argazki artxiboa eta KZGunea aurkeztuko dituzte kultura etxean. Aurkezpenaren ondoren, webgunean nabigatu eta argazki artxiboa ikusteko aukera izango da. Arratsaldean ere zabalduko dute KZGunea.

Teknologia berriek bideak zabalzen dihardute gurean ere. Domekan aurkeztuko dituzte Elgetako KZGunea eta webgune berriak. KZGuneak Internet sarea ezagutzeko aukera emango digu elgetarroi. Webguneak, berriz, herriaren berri sare horretan zabaltzeko balioko du.

Goienak egin du webgunearen diseinua, eta kudeaketaz ere Goiena bera arduratuko da. Webgunearen helbidea www.elgeta.net da, lehen bezala. Domekatik aurrera itxura aldatuta aurkituko dugu. Webgunea berriztatzeak 3.840 euroko kostua izan du, eta Diputazioak 3.000 euroko laguntza eman du horretarako.

KZGunearen nondik norakoak azaltzeko, Juanjo Mendizabal KZGunearen arduraduna etorriko da domekako aurkezpena. Aurkezpenaren ondoren, KZGunean bertan izango dugu aukera webgunea eta argazki artxiboa ezagutzeko.

Argazki artxiboa ere domekan aurkeztuko dute. Behin aurkezpena eginda, udaletxean kokatuko da zerbitzu hori.

Domeka arratsaldean, 16:00etatik 19:00etara, egongo da zabalik KZGunea, webgunea eta argazki artxiboa ikusteko.


ASTELEHENEAN, KZGUNEAN ZABALIK

Astelehenean zabalduko ditu ateak KZGuneak. Azaroan goizetan egongo da zabalik. 09:00etatik 11:00etara ikastaroak emango dituzte eta 11:00etatik 13:00etara nabigatzeko egongo da zabalik. Ikastaroetan parte hartu nahi dutenek udaletxean edo KZGunean eman dezakete izena. KZGunean ematen diren zerbitzuak doakoak dira, bai ikastaroak baita nabigatzea ere. Abenduan arratsaldean egongo da zabalik.



Bederatzi ordenagailu ekarri dituzte KZGunean, eta ikastaroak amaitzen direnean hiru geldituko dira bertan.

Teknologia berriei ateak zabalik



UDALAREN WEBGUNE BERRIA DINAMIKOA IZANGO DA

Duela bi urte estreinatutako www.elgeta.net webgune eraberritua aurkituko dugu domekatik aurrera. Itxura aldaketarekin batera eduki aldaketa ere izango du. Eskainiko duen berritasun nagusia albistegi elektronikoa izango da. Udaleko berrien nondik norakoak norberaren e-postan jasotzeko aukera emango du. Horretarako, gure e-posta bidali behar dugu kultura@elgeta.net helbidera.

2.000 ERRETRATU AURKITUKO DITUGU ARGAZKI ARTXIBOAN

Bere esku zeuden erretratuak artxibatzeari aspaldi ekin zion Udalak. Erretratu horiek jendeak ikusteko moduan egongo dira aurrerantzean. Martitzenetan bakarrik izango da hori, 10:00ak eta 12:00ak bitartean, udaletxean. Herritarren laguntza ere eskatu du Udalak, etxean ditugun erretratuekin argazki artxiboa osatuz joateko. Eskaneatu eta bueltatu egingo dira erretratuak.

LABUR

Industrialdea handitzeko birzatiketa egiten

Pagatzako industrialdea Lehenengo Errekaraino zabaltzeko dagoen proiektua finkatzen ari da. Guztira 81.750 hektarea hartuko ditu industrialde berriak. Aurreko asteko Gobernu Batzordeak sektore honetan dauden lurren birzatiketa lana Toledo taldeari ematea onartu zuen. Udaletik esan digutenez, lanok nahiko aurreratuak dituzte Toledo taldekoek eta urtea amaitu aurretik birzatiketa proiektua udalaren eskuetan egotea espero dute. 22.484 euroko aurrekontua izango du birzatiketa egiteak.

Udalarenak ez diren lur gehienak erosita Torrealdean

Aurreko astean egin zuten batzarra Udalak eta Torrealdeko lurrak erosi dituen enpresa sustatzaileko arduradunek. Lehen hartu-eman horretan Oñatiko enpresa sustatzaileak interes handia agertu du Torrealdean etxebizitzak libreak egiteko. Udalak Torrealdean dituen lurretan babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeaz promotoreak arduratuko diren ez dago erabakita. Elgetako Udalarenak ez diren Torrealdeko gainerako lur gehienak erosita ditu promotoreak. Lurra mugitzen martxo aldera hasiko dira, seguruenik.

Goibekoren Gabonetako loteria salgai

Goibeko Kultura Elkartearen Gabonetako loteria salgai dago herriko taberna eta dendetan. Loteria-txartel ugari taldu dituzte dagoeneko; hor-taz, erosi ez duzenok azkar ibili beharko duzue. Bestetik, Goibekok bazkide kopuruari eutsi dio: hiru lagunek elkarrekin utzi, eta beste bostek izena eman dute.

IRAKURLIARENTXOKUA

EAJ-REN HITZ ETA EKINTZAREN ALDE

Aurreko asteko zutabe honen bitartez, Sebas Aranzabalek EAJren "hitz magiko" eta jardunaren aurka egoteko arrazoiak azaldu zizkigun. Ni neu berriz, EAJk esan eta egiten dituen alde nagoenez, hona hemen nire gogoeta.

Sebasek ez ditu gogoko Garzonen autoak, ez Bilboko manifestazioan gertatutakoak ezta ere Falangekoen bilkurak. Aitortzen dut nire gustokoa ere ez direla baina era berean ez dut uste abertzaleok ezer onik lortzen dugunik Garzonen probokazioetan erortzen edota Falangekoak datozenean iskanbilak sortzen.

Nik ere nahi dut sei herrialdeetan autodeterminazio eskubidea onartu diezagutela baina oso ondo dakit ere euskaldunoi eskubide hori ukatzen digutenak asko eta botere-tsua direla, Euskal Herri barruan eta kanpoan. Beraz, hemen eta orain, gakoa ez da abertzaleok zer nahi dugun; nahi dugun hori, berdintsua izanez gero, nola lortu dezakegun baizik.

Duela mende batzuk Aulestiako Bengoetxeatarrak zuten goiburua gaurkotasun osoz lantzen ari da EAJ nire ustez, "Bekoak goikoa eskondu leidi, Ta txikiak andia benzi leidi, Asmoz eta jakitez". EAJrendako zerbait oso argi badago zera da:

- 1) Euskaldunok askatasuna lortzekotan, giza eskubideak, elkar bizitza eta demokrazia errespetatuz gero izango dela.
- 2) Sozialismo abertzalearen izenean egiten diren basakeriak direla euskaldunok askatasuna lortzeko dugun eragozpenik handiena eta espainolismo konstituzionalak bere intolerantzia zuritzeko daukan aitzakiarik onena.

ETAren indarkeriak beharbada sozialismoa ekar diezaguke. Seguru nago, oster, ETAren ankerkeriak dirauen artean euskaldunok ez dugula Euskadi askerik izango.

EDUARDO ZUBIAURRE

OHARRA

Irakurliaren Txokua zuzenian Elgetakin lotutako gaien erantzunak emuteko da. Gai nagusixen besteren bat danian, *Gaienaria*-ko erantzun atalaren argitaratuko dira gutunak.

GAZTAÑERRE EGUNA

Gaztaiñak banatu ostian, herriko taldeen kontzertua eta Garagardo Festa izango dira

O.E.

Urtero gaztetxiak antolatzen daberen Gaztaiñerre Eguna gaur izango da. Illuntzeko zazpirak bueltan hasi eta goizaldera arte luzatuko da jaixa. Gaztaiñak jatiez gain, kanpotik ekarritako garagardua edan eta herriko musika taldiak entzuteko aukeria izango da.

Eguraldixak laguntzen badau, gaztaiñak plazan erretzia da gaztetxeuen asmua. Arratsaldian hasiko dira dana gertatzen. Illuntzeko zazpiretarako lehenengo gaztaiña erriak danbolinetik ataratzia espero dabe. Hogeiki kilo gaztaiña inguru izango dira gaur illuntzian plazan erreko dituenak. Hara inguratzen diran lagun artian banatuko ditue gaz-

taiñok, borondatiaren truke. Aurtengo Gaztaiñerre Eguna ez da hor bukatuko, gabian Garagardo Festa eta kontzertua be izango dira-eta.

HERRIKO TALDIK TAULARA

Ostiada oi! eta Punteroi taldiak euren azken aurrerapenak erakutsiko ditue gaur, 22:30ian, gaztetxian izango dan kontzertuan. Eurekin batera, Beasaineko Hell-beer Boys eta Bergarako Goiko Rock taldiak be igoko dira taula gainera. Kontzerturako sarrerak hiru euro balio dau.

Kontzertuakin batera Garagardo Festa be antolatu dabe gaztetxeuek. Atzerritik ekarritako garagardua edateko aukera izango da bertan. Gaur gabian festa girorik ez da falta izango geure herriko gaztetxean.



Aurrekuetan moduan, jentia dantzan eta saltoka ikusi nahi dabe Ostiada oi!-kuak.



Otsaillian aldatzeko zan pagua zerratu zebeu zapatuan

Zortzi ziran aurreko zapatu goizaldera arte plazan zeguazen arbolak. Zapatu goizaldian, ezezagun batzuek zerra eta guzti plazara etorri eta bota egin zebeu arbolak. Arbolia ustelduta zeguan aspalditik, eta orririk be ez jakon urtetzen. Udalak bertan landatzeko pagua eskatuta zeukan. Arbolak landatzeko garaixan, urtarril eta martxo artian, landatu bihar zebeu. /O.E.

LABUR

Jone Muxika, denboraldiari ekiteko gertu

Aurreko astean hasi zen aurtengo ziklokros denboraldia, Karrantzan. Jone Muxika ez zen han izan, eta asteburu honetan Gordexolako lasterketara joango den ere ez dauka erabakita. Esan digu entrenamendu falta duela eta hurrengo lasterketetan ekingo diola denboraldiari.

Klubena Arteko Txapelketako partiduak gaur

Lan txukuna egiten dihardute Klubena Arteko Txapelketan Ozkarbiko pilotariek. Gaur, 20:15ean, beste kanporaketa bat jokatu dute elgetarrek. San Esteban, Zarautz eta Aretxabaleta izango dira gaurko partiduetan kontrarioak.



RECYDE, S.A.
Pagotza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa
Tel. zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es



AENOR
Enpresa Erregistratua
ER-0182/2/95
ISO 9002
QS 9000
ISO/TS 16949



ELGETA AUTOAK

Berraondokoa z/g ELGETA
T. 943 76 82 02 F. 943 76 82 98

ERRETRATU ZAHARRA

BERGARA

Gazte koadrila Pazkoetan, 1950 inguruan

Oraingo asteko erretratu zaharra XX. mendearen erdialdekoa duzue. Bertan gazte koadrila bat ikus dezakezue, Bidekurutzeta kalean, Mariaren Lagundia parean, hain zuzen ere. Bitxikeria moduan, atzean, eskuinaldean, oraingo Erregetxo plazan zegoen iturria antzeman daiteke. Iturri hura agertzen den argazki bakarrenetakoa duzue hauxe. Jaso dugun informazioaren arabera, iturri gaineko irudia edo antzeko bat Donostiako Londres Hotelaren parean ei dago.

Argazkia 1948. urtean ateratakoa da. Urte hartan Pazkoetara etorritako argazkilari ibiltariren batek egindakoa da, eta honako hauek dituzue argazkian azaltzen diren gazteak, ezkerretik eskumara: Antonio Zuarategi, Laurentxi Lazpiur, Lorentzo Laskurain, Pedro Untzurruntzaga eta Tomas Muxika.

Argazkia: BUA (Lorentzo Laskurain)



ADI IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

NOLA ALDATU DIREN GAUZAK

BERGARA

Urdangarin eta Alkabieta

Alboko bi argazkien artean 42 urteko aldea dago. Ezkerrekoa Urdangarin kaleko 3. zenbakiko etxea egiten hasi zirenekoa duzue. Antza denez, 1960. urteko uztailean hasi ziren aipatutako etxea eraikitzen. Eskuinaldean, Alkabieta kalean beste etxebizitza batzuk egiten hasiak zirela ikus daiteke. Matxiategi aldera herria handitzen hasi zen 1960ko hamarkadan.



1960 Urdangarin kaleko 3. zenbakiko etxea egiten hasi zireneko irudia (Bergarako Udal Agiritegia, Alberto Odriozola).



2002 Ezkerrean, Urdangarin kaleko 3. zenbakiko etxea; atzerago, Alkabieta kalean egin zuten lehen etxeetako bat, 1960ko argazkian ageri dena.

Zumelaga
JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21

KONDE
PANADEROKUA



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

U
UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE

MUJIKA FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8. 943 76 28 67. BERGARA

Edozein egoera menderatzen
lagunduko dizun auto betekin amets egiten duzu?
Vectra berria Orain, 16.500 €-tik aurrera.



Opel Vectra berria

Xasis berria Gidatzeko Sistema Interaktiboarekin (IDS), non direkzioak, frenoak eta esekidurak elkarrekin lan egiten duten errepidearen kontrol osoa lortzeko. Vectra guztiz berritua, Ecotec balbula anitzeko motor gama berritzailearekin: 2.2 DTI / 125 ZP edo 3.2 V6 / 211 ZP edo potentzia handiko motorra duen GTS bertsioa.



Opel. Ideia berriak. Auto hobekak.

*Fabrikatzaileak gomendatutako salneurria Penintsulan eta Balear Uharteetan Vectra Club 1.8 16 V modeloan. Hau guztia barne: garraioa, BEZa, matrikulazio zerga, Prever Plana eta berria ez den ibilgailuen akzioa. Hil bukaera arteko promozioa. Iragarkian agertzen den modeloa ez da eskaintzen dena.

Giauto Bergara

Kontzesionario ofiziala:


Olabarrena auzoa z/g. Tel. 943 76 33 44/45/46/47. BERGARA

www.giauto.es

GRUPO **RKUZ** 1950-2002



Arkauz zure etxea da.



RKUZ Araba etorbidea 20 • Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABAETA

ETXE MOBEL Araba Etorbidea 5 • Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE

RKUZ Mitarte 3 • Tel./Faxa: 943 77 04 55 **FAGOR**
SUNALDE INTEGRALA **ARETXABAETA**

RKUZ Asuncion, 1 • Tel./Faxa: 943 79 10 97
LENTRAGAILUAK **ARETXABAETA** **expert**